



**LARRAULGO UDALA**  
(GIPUZKOA)

# LANDA EREMUKO UDALTALDE 21 PILOTUA



**Tokiko Agenda 21. Larraul  
Behin-betiko Diagnostikoa**

<b>Izenburua / Título:</b>	Tokiko Agenda 21 Larraul. Behin-betiko Diagnostikoa.			
<b>Egileak / Autores:</b>	Oinarrizko Lantaldea: Garbiñe Olaberria (Kontrataturiko Teknikaria), Maider Etxaide (Haizea, S.L.), Miren Askasibar (Paisaia, S.L.)			
<b>Hartzaileak / Destinatarios:</b>	Larraulgo udala			
<b>Edizioko data / Fecha de edición:</b>	2005eko urriak 6			
<b>Itzulpena / Traducción</b>				
<b>Orriak / Páginas:</b>	81			
<b>Bertsioa / Versión:</b>				
<b>Erreferentzia / Referencia:</b>				
<b>Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:</b>	2005.eko urtarrilak 10			
<b>Iraupena / Duración:</b>	12 hilabete			
<b>Bertsioen historia / Historial de las versiones:</b>	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

**AURKIBIDEA**

Sarrera 6

**1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA****1.1. Biztanleria**

1.1.1. Biztanleriaren dentsitatea 8

1.1.2. Biztanleriaren eboluzioa 8

1.1.3. Biztanleriaren egitura 10

1.1.4. Familien egitura eta tamaina 12

1.1.5. Migrazio mugimenduak 13

**1.2. Jarduera ekonomikoa eta enplegua**

1.1.6. Enplegua 15

1.1.7. Egitura ekonomikoa 18

**1.3. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegiturak. Bizi kalitatea**

1.3.1. Etxebizitza 21

1.3.2. Oinarrizko zerbitzuak 26

1.3.3. Hezkuntza 26

1.3.4. Osasuna 29

1.3.5. Gizarte zerbitzuak 30

1.3.6. Kultura 33

1.3.7. Kirola 35

1.3.8. Euskara 36

1.3.9. Erljioa 37

1.3.10. Aisia 38

1.3.11. Herri giroa 40

**2. INGURUNE NATURALA****2.1. Naturgune eta elementu natural babestuak**

2.1.1. Babestutako naturgune eta elementuen zerrenda, kontserbaziorako arrazoiak eta babes mota 42

**2.2. Ondare naturala eta paisaia kontserbatzeko intereseko eremuak**

2.2.1. Interesgarriak izan arren babestu gabe dauden eremuen zerrenda eta deskribapen laburra 43

**2.3. Suteak**

2.3.1. Baso suteak 43

**3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA****3.1. Errepide sarea**

3.1.1. Udalerriko egungo errepide sarea 45

3.1.2. Errepide berriak egin edo egungoak hobetzeko proiektu/aurreikuspenak 45

3.1.3. Puntu beltzak, gune arriskutsuak 46

**3.2. Mugikortasunaren ezaugarriak**

3.2.1. Ibilgailuak 46

3.2.2. Aparkalekuak 48

3.2.3. Garraio publikoa 49

**3.3. Irisgarritasuna**

3.3.1. Arazoak (elurra, luiziak, zuhaitz eroriak...) 51

3.3.2. Aurreikuspenak 51

**4. INGURUMEN BEKTOREAK**

<b>4.1. Ura</b>	
4.1.1. Ur baliabideak	52
4.1.2. Ur hornidura	52
4.1.3. Ur kontsumoa	53
4.1.4. Saneamendua	55
4.1.5. Hornidura, saneamendua, eta uraren erabileraren udal kontrola (udalak zer kontrolatzen du)	55
<b>4.2. Energia</b>	
4.2.1. Energia hornidura iturriak: elektrizitatea, gasa, energia berriztagarriak	55
4.2.2. Udalerriko energia kontsumoa	56
4.2.3. Energia berriztagarriak	57
4.2.4. Energia aurrezteko udal neurriak	57
<b>4.3. Hondakinak</b>	
4.3.1. Hondakinen kudeaketarako organo eta enpresa eskudunak	57
4.3.2. Hondakinen sorkuntza	58
4.3.3. Hondakinen kudeaketa	58
4.3.4. Informazio eta komunikazio kanpainak	61
4.3.5. Kontrolik gabeko isurpen puntuen identifikazioa	62
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>	
<b>5.1. Baso ustiapenak</b>	
5.1.1. Baso zoruaren azalera eta urteroko aprobetxamendua (m <sup>3</sup> )	63
5.1.2. Zertifikatutako baso ustiapenen existentzia	66
5.1.3. Eraginaren deskribapen kualitatiboa	66
<b>5.2. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak</b>	
5.2.1. Ustiategiak	67
5.2.2. Nekazaritza/abelzaintza ekologikoko ustiategiaren existentzia	69
5.2.3. Eraginaren deskribapen kualitatiboa	69
<b>5.3. Industria</b>	
5.3.1. Enpresa nagusiak	70
5.3.2. Eraginaren deskribapen kualitatiboa (zaratak, usainak...)	71
<b>5.4. Zerbitzuak</b>	
5.4.1. Hezkuntza jarduerak/Ostalaritza/Turismo egitura	71
5.4.2. Jardueren eraginaren deskribapen kualitatiboa	72
<b>5.5. Lurzoru poluituak</b>	
5.5.1. Potentzialki poluitutako lurzoruen identifikazioa eta leheneratze jardueren existentzia	72
<b>6. ARRISKUEN ANALISI ETA KUDEAKETA</b>	
<b>6.1. Udalerri mailako Larrialdi Planak</b>	
6.1.1. Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra	74
<b>6.2. Udal azpiegitura eta instalazioetarako Larrialdi Planak</b>	
6.2.1. Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra	74
<b>7. KOMUNIKAZIO, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA</b>	
<b>7.1. Komunikabideak</b>	
7.1.1. Udalerri mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak	75
7.1.2. Eskualde mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak	75
<b>7.2. Komunikazioa Udaletxetik</b>	
7.2.1. Udalak erabiltzen dituen komunikazio-kanalak: Bandoak, komunikabideak....	75
7.2.2. Udal batzordeak: Batzorde irekien existentzia, batzordeen arteko komunikazioa...	75

7.3.	Komunikazioa Udaletxearekin	75
7.4.	Heziketa jarduerak	
7.4.1.	Udaletxeak edo Udalaz gaindiko entitateen batek sustatutako kanpainak eta ekimenak	76
7.5.	Udalerriko elkarte sarea	
7.5.1.	Udalerriko elkarteak eta partaidetza ereduak	76
7.5.2.	Parte hartzeko beste bide batzuk	77
<b>8. UDAL INGURUMEN KUDEAKETA</b>		
8.1.	Ingurumenaren aldeko ekimenak (udalak garatutakoak zein udalaz gaindiko entitateen partaidetzak garatutakoak)	
8.1.1.	Landa eremuko jarduerari lotutakoak	78
8.1.2.	Beste batzuk	78
8.2.	Udal ingurumen araudia, eta paisaiari buruzkoa	78
8.3.	Ingurumen edo/eta iraunkortasuneko irizpideak kontutan hartu direneko jarduerak	
8.3.1.	Erosketa berdea	78
8.3.2.	Kontratazioko plegu teknikoak	78
<b>9. UDALAREN ONDAREA</b>		
9.1	Eraikinak	79
9.2	Hilerria	79
9.3	Lursailak	79
	Informazio Iturriak	80

## SARRERA

2005eko Urtarrilaren 10ean Tokiko Agenda 21 ezartzeko Landa Eremuko Udaltalde Pilotua abian jarri zen, ondoko lau udalerritxikietan: Bidegoian, Albiztur, Alkiza eta Larraul. Ihobek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mendikoik sustatzen duten eta Tolomendik koordinatzen duen proiektu honen helburua da landa eremuko udalerritxikietan Tokiko Agenda 21 prozesua ezartzea eta herri horien ezaugarrietara egokitutako metodologia bat garatzea. Proiektuaren funtsa da **herri txukun, bizi eta juxtu bat garatzen lagunduko duen herri plan bat taxutzea, herritarren partehartzea integratuz.**

TA21en ezarpenak fase desberdinak ditu eta horietariko aurrenekoa herriaren Diagnostikoa egitea da. Prozesua martxan ipini zen une beretik Diagnostikoa osatzeko beharrezko informazioaren bilketa egin da, informazio iturri ofizial desberdinak erabiliz, tartean udal bera, eta baita ere zenbait herritarrekin eginiko elkarrizketan azaleratutako iritziak jasoz. Informazio horrekin, diagnostikoaren lehen zirriborroa osatu da, eta horren gainean udalak bere inguruko lehen hausnarketa egin ondoren Bigarren zirriborroa osatu da. Bigarren zirriborroko gai esanguratsuenak, Herri Batzarrean aurkeztu dira, eta bertako ekarpenak jaso ondoren aurkezten da Behin-betiko Diagnostikoa osatua.

Udaltalde Pilotuaren Behin-betiko Diagnostiko agiri honetan ondoko gai edo atalak lantzen dira nagusiki:

- Ingurune sozial eta ekonomikoa
- Ingurune naturala
- Mugikortasuna eta garraioa
- Ingurumen bektoreak
- Jarduera ekonomikoen eragina bizi kalitatean eta ingurumenean
- Arriskuen analisi eta kudeaketa
- Komunikazioa, sentsibilizazioa eta partehartzea
- Udal ingurumen kudeaketa

- Udalaren ondarea

Atal hauetako bakoitzean hainbat azpiatal aztertzen dira.


Txostena bi zutabez osaturiko taula baten gisara antolatuta dago. Taulako ezkerreko zutabearen herritarren diagnostikoa azaltzen da, hots, **herriko eragileei egindako elkarrizketen sintesia, eta Herri Batzarrean jasotako adostasun eta proposamenak**. Bi hauen arteko bereizketa egin ahal izateko, herriko eragileen elkarrizketetatik bilduriko erantzunak letra txikiz dauden bitartean, Herri Batzarrean bildurikoak letra larriz ageri dira. Herri Batzarrean bilduriko proposamenak bakarka egindakoak nahiz talde mailan egindakoak dira.

Eskuineko zutabearen, berriz, iturri desberdinetatik jasotako datu objektiboak ageri dira.

Atal bakoitzaren amaieran, bi zutabeak biltzen dituen interpretazio bat egiten da. Lehen atalaren azpiatal kopuru handia dela medio, zenbait azpiatal bilduz interpretazio bat baino gehiago egin dira.


**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA****1.1. Biztanleria**

- Herria handitzearen inguruan iritzi desberdinak daude. Batzuk ondo ikusten dute herria handitzea, beti ere nortasuna mantenduz, eta besteek ez dute herria handitzerik nahi, herriak txikia izaten jarrai dezan nahi dute.
- Gazteek herrian geratzeko aukera dute gaur egun. Garai batean, herritik alde egin behar izan zuten zenbait gaztek.
- Orokorrean, herrian nahiko adindu daude baina, azken urteetan haurrak ugaritu dira. Etxe berriak egiteak biztanlerian aldaketa ekarriko duela uste da.
- Gazteak baserrietik joan egiten dira eta baserrietan adinduak geratzen dira. Hauek hiltzean baserriak hutsik geratuko dira.

**1.1.1. Biztanleriaren dentsitatea**

Larraulgo biztanle dentsitatea, Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoekin alderatuz oso baxua da, landa eremuko udalerrri bati dagokion moduan.

- Gehienen ustez, etxebizitza sustapen berriaren bolumena handiegia izan da. Urte askotan etxebizitza gutxi egin ondoren, kolpez gehitxo egingo direla uste da.
- HERRIAK ZENBAT HAZI BEHAR LUKEN INGURUAN HAUSNARKETA/EZTABAIDA SERIO BAT EGIN BEHAR DA<sup>1</sup>.
- BASERRIAK HUTSIK GERATZEN ARI DIRELA ARAZO MODUAN IKUSTEN DA.
- HERRIKO GAZTEEK EZIN DITUZTE EZ HERRIKO EZ ETA KANPOKO ETXE BERRIAK EROSI, ETA HERRIAN EGITEN DIREN ETXE BERRIAK LEHENTASUNEZ HERRITARRENTZAKO BEHAR LUKETE.

**1.1.2. Biztanleriaren eboluzioa**

<sup>1</sup> Letra larriz, Herri Batzarrean jasotakoak azaltzen dira ezker zutabe honetan. Letra txikiz, aldiz, elkarrizketetan jasotakoak.



## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA


## Auzo eta herriguneen zerrenda eta biztanleriaren banaketa (2001-2005)

	2001	2002	2003	2004	2005
<b>Erdigunea</b>	33	34	55	63	67
<b>Barreiatua</b>	113	115	112	113	110
<b>Guztira</b>	<b>146</b>	<b>149</b>	<b>167</b>	<b>176</b>	<b>177</b>

Iturria: Udala

Biztanleriaren eboluzioan ikusten denez, 1981etik 1996ra biztanleriak %25ean egin zuen behera, baina hortik aurrera biztanleria igotzen joan da, 2005ean ia 1981eko kopuruetara iritsiz.

Udalerriko erdigunea eta auzoen artean biztanleak nola banatzen diren begiratzen badugu, ikusiko dugu azken urteetan Larraulgo erdigunean bizi den pertsona kopurua bikoiztu egin dela, eta Barreiatuko pertsona kopurua, berriz, zertxobait gutxitu dela. Izan ere, 2001ean udalerriko biztanleen %23a bizi zen erdigunean, eta 2005ean %38.


Jaiotza- eta heriotza-tasak (1981-2001)  
Gipuzkoakoekin konparatuz

Iturria: Eustat

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA


Jaiotza- eta heriotza-tasen eboluzioa  
(2000-2004)

Iturria: Udala

1981ean Larraulen Gipuzkoako joera bera ematen zen: jaiotza-tasa heriotza-tasa baino altuago zen. Hortik aurrera, Gipuzkoan bi tasak berdindu egin dira. Larraulen, aldiz, 1986tik 2001era jaiotza-tasa heriotza-tasa baino askoz baxuagoa izan da. Jaiotza-tasaren inflexio puntua 2001en koka dezakegu, hortik aurrera igotzen joan baita. Egun, jaiotza-tasa heriotza-tasaren laukoitza da Larraulen, biztanleriaren hazkuntza lagunduz.

## 1.1.3. Biztanleriaren egitura

Biztanleria sexu eta adinaren arabera (1981-2001)



Iturria: Eustat

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA


## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

1981 eta 1996 urteen artean, 0-19 urte bitartekoen kopurua jaitsi da, baina hortik aurrera gorako joera azaltzen hasi da. 65 urtetik gorakoen kopurua hazten joan da 1981etik 1996ra, hortik aurrera berdintsu mantenduz. 20tik 64 urte arteko gizonen kopurua jaisten joan da epe guztian, ia emakumezkoen kopuruarekin berdintzera iritsi arte.

Bestalde, 2005eko biztanleriaren egituran talde gehiago bereizten dira. Ondoko grafikoan ikus daitekeenez, 14 eta 29 urte bitartekoak 0 eta 13 urte bitartekoak baino gutxiago dira, egun herrian duela urte batzuk baino haur eta gaztetxo gehiago dagoela frogatuz.

**Biztanleria sexu eta adinaren arabera  
(2005.eko urtarrila)**



Iturria: Udala


■ Gizonezkoak ■ Emakumezkoak

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Biztanleriaren egituraren konparaketa (2001)




Iturria: Eustat

Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAeko batezbesteko datuekin alderatuz, Larraulen, 65 urtetik gorako pertsona gehiago dago, eta 20-64 urte bitartekoak gutxiago dira, bereziki emakumezkoak.

1.1.4. Familien egitura eta tamaina

Familien egitura (1991-2001)



Iturria: Eustat

Seme alabarik gabeko guneak eta seme-alabak



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																																																
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>																																																	
	<p>dituzten guneak gehitu dira (bi kasuetan familia kopurua bikoiztu egin da), eta gune askotarikoak berriz, erdira jaitsi. 1991an ez bezala, 2001. urtean, familia konposatuak ageri dira. Pertsona bakarreko, guraso bakarreko, eta familia handituen kopuruek gora-beherak erakusten dituzte.</p>																																																
	<div data-bbox="788 584 1417 1111" style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"><b>Familien tamaina (2001)</b></p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <caption>Familien tamaina (2001)</caption> <thead> <tr> <th>Herria</th> <th>Pertsona familiako</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Larraul</td> <td>3,72</td> </tr> <tr> <td>Tolosaldea</td> <td>2,72</td> </tr> <tr> <td>Gipuzkoa</td> <td>2,72</td> </tr> <tr> <td>EAE</td> <td>2,76</td> </tr> </tbody> </table> <p style="font-size: small;">Iturria: Eustat</p> </div> <p>Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAeko familien batezbesteko tamaina oso antzekoa den bitartean, Larraulgo familietan besteekin alderatuz pertsona bat gehiago dago familiako, batez beste.</p>	Herria	Pertsona familiako	Larraul	3,72	Tolosaldea	2,72	Gipuzkoa	2,72	EAE	2,76																																						
Herria	Pertsona familiako																																																
Larraul	3,72																																																
Tolosaldea	2,72																																																
Gipuzkoa	2,72																																																
EAE	2,76																																																
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kanpotik datorren jendearen inguruan iritzi desberdinak daude. Batzuen ustez beharrezkoa zen kanpoko jendea etortzea, herriari bizia emango diotela pentsatzen baita. Beste batzuen iritziak, etxeak lotarako edo asteburutarako bakarrik erabiliko dira eta honek ez dio onik egiten herriko bizia.</li> <li>▪ Batzuen ustez, kanpotik herrira bizitzera datozenek lehenengo urteetan herriko ekintzetan parte hartzen dute, baina hortik aurrera ez dira gehiago azaltzen.</li> <li>▪ Batzuk diote egin diren etxe berrietara kanpoko jendea datorrela, etxe hauek ez dira herriko gazteen baldintzetara egokitzen, kanpoko jende diruduna etorriko da etxe hauetara, eta lehenik herriko gazteen beharrak bete beharko lirateke.</li> <li>▪ LARRAUL LO EGITEKO HERRIA, ETA/EDO BIGARREN ETXEBIZITZA EDUKITZEKO LEKU</li> </ul>	<p><b>1.1.5. Migrazio mugimenduak</b></p> <div data-bbox="788 1368 1417 1962" style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"><b>Migrazio mugimenduak (1991-2001)</b></p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <caption>Migrazio mugimenduak (1991-2001)</caption> <thead> <tr> <th>Urte</th> <th>Emigratioa</th> <th>Udalerri barruko migrazioak</th> <th>Immigrazioa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1991</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>1992</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>1993</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>1994</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>1995</td><td>0</td><td>5</td><td>0</td></tr> <tr><td>1996</td><td>0</td><td>42</td><td>12</td></tr> <tr><td>1997</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>1998</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>1999</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> <tr><td>2000</td><td>0</td><td>5</td><td>0</td></tr> <tr><td>2001</td><td>0</td><td>0</td><td>0</td></tr> </tbody> </table> <p style="font-size: small;">Iturria: Eustat</p> </div>	Urte	Emigratioa	Udalerri barruko migrazioak	Immigrazioa	1991	0	0	0	1992	0	0	0	1993	0	0	0	1994	0	0	0	1995	0	5	0	1996	0	42	12	1997	0	0	0	1998	0	0	0	1999	0	0	0	2000	0	5	0	2001	0	0	0
Urte	Emigratioa	Udalerri barruko migrazioak	Immigrazioa																																														
1991	0	0	0																																														
1992	0	0	0																																														
1993	0	0	0																																														
1994	0	0	0																																														
1995	0	5	0																																														
1996	0	42	12																																														
1997	0	0	0																																														
1998	0	0	0																																														
1999	0	0	0																																														
2000	0	5	0																																														
2001	0	0	0																																														

**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

BIHUR DAITEKEELA BELDUR DIRA ETA BERAZ, ARAZO BIHUR DAITEKEELA USTE DA.

- HERRIKO GAZTEEK EZIN DITUZTE EZ HERRIKO EZ ETA KANPOKO ETXE BERRIAK EROSI, ETA HERRIAN EGITEN DIREN ETXE BERRIAK LEHENTASUNEZ HERRITARRENTZAKO BEHAR LUKETE.
- EZ DA ARAZO GISA IDENTIFIKATZEN, KANPOTIK HERRIRA DATOZENEN INTEGRAZIOA HOBETU BEHARRA. HERRITARREK EZ DUTE INTEGRAZIORAKO OZTOPORIK JARTZEN. KANPOKO EK ERE JARRI BEHAR DUTE BERAIEN ALDETIK INTEGRATU NAHI BADUTE.

1991-2001 urteen arteetan ez da migrazio mugimendu gehiegi eman. 1996an izan ziren gora behera gehienak, batez ere udalerrri barruko migrazioak egon baitziren.



2000-2004 tartean mugimendurik handiena 2002.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
	urtean izan da, bai emigrazioan, eta bai inmigrazioan. Gainerako urteetan ez da mugimendu gehiegirik izan, herrira bizitzera etorri direnen kopurua joandakoen kopuruaren parekoa izanik. Azken urteetan egin diren etxebizitza sustapenak aztertuz, 2000. urtean 10 etxebizitza berri egin zirela ikusten da, eta 2002ko etorkinen kopurua honi lotua egon daiteke.
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Larraul dentsitate baxuko herria da, landa eremuko herri bati dagokion moduan. Honek eragin nabarmenak ditu biztanle kopuruarekin erlazio estua duten zerbitzu, ekipamendu eta azpiegituren horniduran (hezkuntza, kirola, osasuna, aisia, dendak...).</p> <p>Orokorrean, biztanleria berpizten ari dela ikusten da, nahiko adindu dagoen arren, haurren kopurua gehitu dela esaten baita. Datuek arrazoa ematen diete herritarren usteei; izan ere, 1981etik 1996ra biztanleria %25 jaitsi zen arren, azken 10 urteetan 1981eko kopurura iritsi arte hazi da. Hazkuntza hau jaiotza-tasaren igoerari esker, eta eskualdetik herrira bizitzera etorri direnei esker eman da. Hala ere, Larraulen bizi diren adinduen portzentaia, Gipuzkoako batezbestekoarekin alderatuta, altua da. Familien egituran azken 15 urteetan emandako aldaketen arabera, seme alabak dituzten eta ez dituzten gunek dira gehien ugaritu direnak, eta gunek askotako familiak, berriz, gutxitu dira. Hala ere, Gipuzkoa batezbestekoarekin alderatuz, Larraulgo familiak handiagoak dira (kide bat gehiago dute batez beste).</p> <p>Orokorrean, lotura bat aurki daiteke biztanleriaren hazkundera eta etxebizitza berriak eraikitzearen artean, etxebizitza berriak egin diren urteetan edo horien ondoren etorkin gehiago egon baitira, eta herriko jende gutxiago joan da kanpora bizitzera. Hala ere, herritar batzuk bertakoentzat nahikoa etxebizitza egiten ez dela kexu dira. Herriaren hazkuntzaren inguruko eztabaida serio baten behar handia dagoela ikusi da Herri Batzarrean.</p> <p>Azken 5 urteetan, herriaren erdiguneko biztanle kopurua bikoiztu egin da, barreiatuan bizi direnen kopurua zertxobait jaitsi den artean. Etxebizitza berrien sustapenarekin, joera hau areagotuko da, herriaren egituran aldaketa nabarmen bat ekarriz. Herri Batzarrean kezka agertu da aldaketa honen inguruan, eta arazo larri moduan sailkatua izan da erdigunean ikusten ari den konfigurazio aldaketa.</p> <p>Elkarrizketatuek iritzi desberdinak dituzte kanpotik herriko etxebizitzetara datorren jendearen inguruan: batzuen ustez beharrezkoa den artean, beste batzuk diote etxebizitzak lotarako edo aste-bukaerarako bakarrik erabiliko dituztela, eta ez dutela herriko bizian eragin positiborik izango. Herri Batzarrean ikusitakoaren arabera, herria lotarako edota aste-bukaeratarako soilik erabiltzea gaur egun arazo moduan ikusi ez arren, arazo bihur daitekeela uste da. Zenbaiten ustez, kanpotik datozen pertsona batzuk herrian integratzen dira, baina beste zenbait ez. Kanpotik datozenen integrazioa hobetu beharra ez da arazo moduan identifikatu, Herri Batzarrean.</p>	
<b>1.2. Jarduera ekonomikoa eta enplegua</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean, herrian lantegirik ez egotea ez da negatiboki baloratzen.</li> <li>▪ Batzuen iritziz, herrian lanpostuak sortzea ondo legoke, beti ere herriaren itxuran aldaketarik sortu gabe, baina beste batzuen ustez</li> </ul>	<p><b>1.2.1. Enplegua</b></p> <p><b>1.2.1.1. Biztanleria aktiboa eta ez aktiboa</b></p>

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA


## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

herritarrak ohituak daude herririk kanpo lan egitera.

- Gaur egun, gizon zein emakumeek egiten dute etxetik kanpo lan. Emakumeek kanpoan zein etxeko andre moduan lan egiten dute.
- ARAZO LARRIA DA IA LANTEGIRIK EDO INDUSTRIARIK EZ EGOTEA, BAINA BERTAKOEK EZ DUTE PABILOI INDUSTRIALIK NAHI, TAILERTXO EDO ETXE AZPIREN BAT AGIAN, BAINA UDALEKO ARAUEK EZ DUTE HONELAKORIK BAIMENTZEN.
- HERRITAR GEHIENEK HERRITIK KANPO LAN EGITEA NORBANAKOAREN IKUSPEGITIK EZ DA ARAZO LARRI GISA IKUSTEN, ORAIN, HERRI IKUSPEGI BATETIK BEGIRATUZ BERRIZ BAI, HONEK ABERASTASUN FALTA EKARTZEN BAITU UDALARENTZAT.

Biztanleria ez aktiboa sexuaren arabera (1986-2001)




Iturria:Eustat

Orokorrean, pertsona ez aktiboen kopurua jaitsi egin da 1986tik 2001era. 1986an eta 2001. urteetan, 1991ean eta 1996an ez bezala, emakumezko ez aktiboen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela ikus daiteke. 2001. urtean emakumeek biztanleria ez aktiboaren %61a osatzen dute, eta gizonezkoek, berriz, %39a.

#### 1.2.1.2. Langabezi-tasa

Eustaten datuen arabera, 2001. urtean Larraulgo langabezi-tasa %4,8koa zen, Tolosaldeakoa %9,6koa, Gipuzkoakoa %8,3 eta EAEkoa %11,1koa. Beraz, Larraulgo langabezi-tasa beste batezbestekoak baino askoz baxuagoa zen.

Sexuaren araberako langabezi-tasa (1986-2001)



Iturria:Eustat




## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK


## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

1991 urtean emakumezkoen langabezi-tasa 0koa zen, baina gainerako urte guztietan berriz, emakumezkoen langabezi-tasa handiagoa izan da gizonezkoena baino. 1991 urtea kontuan hartu gabe, 2001 urtean da langabezi-tasa baxuen erakusten duen urtea.



Larraulen langabezian dauden pertsonen kopurua hain txikia izanik, normala da Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAeko batezbestekoen aldean banaketa desberdina izatea. Hala ere, orokorrean langabetu ugarien dituen klasea (emakumezkoa 25-44) da Larraulen agertzen dena.

- Turismoa bultzatzea ondo ikusten dute gehienek, beti ere bertako ohiturak errespetatuz.
- Askok uste dute museoa bultzatu beharko litzatekeela. Herritarren artean irekitzen saiatu ziren, baina ez zuen funtzionatu. Tabernaren kargu museoa geratzeak ere ez du funtzionatu.
- LEHENTASUNEZKO ARAZO MODUAN IKUSTEN DA MUSEOAREN ETORKIZUNARI BEGIRA ZERBAIT EGITEKO BEHARRA. AUZOLANA PROPOSATZEN DUTE IREKITA EDUKITZEKO MODU GISA, EDOTA LEKU IREKIAGO BATEAN KOKATZEA, INOREN BEHARRIK EZ IZATEKO.



**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**


- TURISMOA ERAKARTZEKO EGURREZKO ETXOLAK EGIN ETA ALOKAIKIRUAN JAR DAITEZKE. BOLATOKIA MARTXAN JARTZEKO PROPOSAMENA ERE LUZATU DA.

- Herritarrak kanpora doaz lanera, herrian bertan ez baitago lantegirik. Gehienek eskualdean egiten dute lan. Tabernakoak dira lanpostua herrian duten bakarrak.

- Lanera kanpora joateko garraio publikorik ez dago, Asteasutik bai, aldiz, eta laster kanpotik herrira bizitzera etorriko direnekin agian behar hau handitu daiteke.

- HERRITAR GEHIENEK HERRITIK KANPO LAN EGITEA NORBANAKOAREN IKUSPEGITIK EZ DUTE ARAZO LARRI GISA IKUSTEN ORAIN, HERRI IKUSPEGI BATETIK BEGIRATUZ BERRIZ BAI, AKTIBITATE EKONOMIKO GABEZIAK DAKARREN ABERASTASUN FALTA UDALARENTZAT.

Aurreko grafikoan eman den azalpen beragatik ezin da Larraulen banaketa bera ematea espero. Ikus daitekeenez, zerbitzuen sektorea da Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAEko batezbestekoetan ere, langabezi handiena aurkezten duen sektorea. Larraulgo zerbitzu sektoreko langabezia, 20-45 urte bitarteko bi emakumek osatzen dute.




Larraulen, gainontzeko batezbestekoekin alderatuz, norberaren etxean lan egiten dutenen portzentaia handiagoa da, eta bizi den udalerrian lan egiten dutenena, berriz, baxuagoa. Hau baserriak egotearekin, eta industriarik ez egotearekin lotua egon daiteke. Bestalde, EAEn lan egiten dutenen portzentaia Tolosaldeako batezbestekoekin alderatuz baxuagoa da, baina Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoen parean dago.

**1.2.2. Egitura ekonomikoa****1.2.2.1. Barne Produktu Gordina**

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA



Barne Produktu Gordin baxua sortzen dute Larraulgo biztanleek, EAEko, Gipuzkoako eta Tolosaldeako batezbestekoekin alderatuz. Dударik gabe, herrian bertako aktibitate ekonomiko oso dinamiko ez izateak datu honetan eragina du.

**1.2.2.2. Jarduera ekonomikoak****1.2.2.2.1. Empresa/establezimendu zerrenda**

## Industria

- Larraulen ez dago industriarik.

## Zerbitzuak

- Herriko Ostaturia.
- Goiz Argi Jatetxea.

## Autonomoak

2004ko Jarduera Ekonomikoen Gainera Zergaren zerrendan, 23 aktibitate agertzen dira. Horietatik, zerga ordaintzera behartuta daudenak 2 dira.

EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arabera, hiru kategorietako batean sailka daitezke udalerrriak: jarduera ekonomiko ezartzeko lehentasunezko interesekoak, hazkunde motelekoak eta garapen txikikoak. Azken honetan sailkatzen du LAPak Larraul. Larraul, gainbehera ekonomiko edota demografikoa duen zona denez, ekintza dinamizatzaile

- Orokorrean, herrian lantegirik ez egotea ez da negatiboki baloratzen.
- Larraulen pabiloien bat egitekotan, Asteasu edo Villabona-Amasako eskaintzarekin lehiatu ahal izateko prezio merkean jarri beharko litzatekeela uste da, eta askok zaila ikusten dute bideragarritasuna.
- Herriko autonomoentzat pabiloi bat egitekotan ibili zen udala, baina lursail aproposa aurkitzeko orduan adostasun ezak zapuztu zuen proiektua, gehienek ustez.
- Larraulek aukera desberdinak eskaini ditzake turismoaren ikuspuntutik. Batzuk turismoa bultzatzeko ekintzak proposatu dituzte: Ernioko bidea eta beste oinezko bideak txukuntzea; askaldegia bat prestatzea; Olazar txukuntzea; Txuringadi errota eta beste errota batzuen artean ibilbide bat prestatzea; museo bultzatzeko egun osoko egitaraua prestatzea (karobiak bisitatzea barne); Leintz-Gatzagan dauden bungalowen tankerako batzuk jartzea;

**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**


nekazalturismoren bat ipintzea...

- ARAZO LARRIA DA IA LANTEGIRIK EDO INDUSTRIARIK EZ EGOTEA, BAINA BERTAKOEK EZ DUTE PABILOI INDUSTRIALIK NAHI, TAILERTXO EDO ETXE AZPIREN BAT AGIAN, BAINA UDALEKO ARAUEK EZ DUTE HONELAKORIK BAIMENTZEN.
- LARRAULEN INDUSTRIA PABILOIREN BAT EGITEKOTAN, ASTEASU ETA VILLABONA-AMASAKO ESKAINTZEKIN LEHIATZEA EZ DA ARAZOTZAT IKUSTEN, NAHI IZANEZ GERO ERE, INDUSTRIAK EZIN BAITUTE JOAN.
- TURISMOA ERAKARTZEKO EGURREZKO ETXOLAK EGIN ETA ALOKAIRUAN JAR DAITEZKE MURGIL ONDOAN, GARAI BATEAN BOLATOKIA ZENAREN ALDAMENEAN. BOLATOKIA MARTXAN JARTZEKO PROPOSAMENA ERE LUZATU DA.
- Gazteak baserritik joan egiten dira eta baserrietan adinduak geratzen dira. Hauek hiltzean baserriak hutsik geratuko dira.
- Baserritik ez da ia jenderik bizi, ustialeku bakarra dago herrian. Honez gain, zenbait pertsona helduk beraien baratza eta abere gutxi batzuk dituzte.
- BASERRITIK BIZI DIREN HERRITARRAK, GEROZ ETA GUTXIAGO DIRELA ARAZOTZAT IKUSTEN DA, BAI ETA, GAZTEEK EZ DUTELA BASERRIAN GERATU NAHI.
- BASERRIAN BERTAN EDO ONDOAN ETXEBIZITZA ANTOLATZEKO AUKERA EMANEZ GERO, JENDE GAZTEA BERTAN GERATUKO LITZATEKE BIZITZEN.

eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna aipatzen du.

Plan honen arabera Larraulen ez dago jarduera ekonomikoetara zuzenduriko lurzorurik.

Lurraldearen Arloko Plan honen arabera, Larraulen ez da aurreikusten merkataritza ekipamendu handirik ezartzea, gehienez 15.000m<sup>2</sup> azalera garbia eta 5000m<sup>2</sup>ko sabai-azalera duen eraikina, ipintzea izango litzateke posible.

**1.2.2.2. Langile kopurua sektore eta azpisektoreka**


Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAeko batezbestekoekin alderatuz, desberdintasun nabarmenenak hauek dira: nekazaritzak Larraulen pisu askoz handiagoa du, eraikuntzak ere, eta industriak, aldiz, besteetan baino garrantzi txikiagoa. EAEn zerbitzuen sektoreak langileen %60 hartzen duen bitartean, Larraulen nekazaritza, eraikuntza eta industria dira langileen %60ari jatekoa ematen dietenak.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Larraulen lantegirik edo industriarik ez egotea ez da modu negatiboan ikusten elkarrizketatuen gehiengoaren aldetik. Hala ere, kontuan izan behar da biztanleko Barne Produktu Gordina %20,7 txikiagoa dela Larraulen Gipuzkoako batezbestekoa baino, eta herrian lantegirik ez izateak honetan eragina izango duela. Negatiboki baloratua izan ez arren, gai hau Herri Batzarrean arazo larri gisa sailkatu da. Herri Batzarrean, jarduera ekonomikoak bultzatzeko herrian pabiloiak egitea ez da ondo ikusten, tailertxo eta etxe azpiak erabiltzea hobe ikusten da. Pabiloiak egiteko aukerari dagokionez, Asteasu eta Villabona-Amasako industrialdeekin lehiatzeko prezioak txikiak izan beharko dutela uste duenik bada elkarrizketatuen artean, baina Herri Batzarrean industrietan nahi izanez gero ere ezin dutela Larraulera joan aipatzen da. Herriko autonomoentzat pabiloi bat egitea pentsatu zen, baina ideia bertan behera geratu zen lursail aproposa aukeratzeko orduan adostasunik lortu ez zelako.</p> <p>Bultzatu beharko litzatekeen beste jarduera bat turismoa da, batzuen ustez, baina beti ere herriko itxura eta ohiturak errespetatuz. Museoaren etorkizunaren inguruan konponbide bat aurkitu beharra dagoela adostu da eta arazo larri gisa sailkatu da Herri Batzarrean.</p> <p>Orokorrean, elkarrizketatuak ohituak daude lanpostua herritik kanpo izaten. Izan ere, herritik kanpo lan egiten dutenen proportzioa altuagoa da Gipuzkoako batezbestekoa baino. Herritarren gehiengoak kanpoan lan egin arren, ez dago lanera joateko garraio publikorik edo kolektiborik. Herri Batzarrean, herritik kanpo lan egitea ez da arazo moduan sailkatu, baino bai, udalarentzat diru iturririk eskaintzen ez duen aktibitate ekonomikoaren gabezia.</p> <p>Elkarrizketatuek ez dute kezka berezirik erakusten lana aurkitzearen inguruan, eta datuek hala diote. 2001.eko datuen arabera, Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoekin alderatuta, langabezi tasa oso baxua da Larraulen. Datuek diotenez, emakumeentzat zailagoa da lana aurkitzea, izan ere, herriko langabetu gutxiak emakumezkoak dira.</p> <p>Nekazaritza beherantz doan sektorea da eta, elkarrizketatuek eta Herri Batzarrean bildurikoek, gai honen inguruan beren kezka azaldu dute. Gipuzkoako batezbestekoarekin alderatuz, Larraulgo biztanleen portzentaia altua bizi da nekazaritzatik; izan ere, herriko biztanleen artean 16 urtetik gorakoak izan, eta lana dutenen artean, ia %20 nekazaritzan dihardu. Beste %20k industrian egiten du lan (Gipuzkoako batezbestekoa baino gutxiagok), %20k eraikuntzan (Gipuzkoako batezbestekoa baino gehiagok), eta %40ak zerbitzuen sektorean (Gipuzkoako batezbestekoa baino gutxiagok).</p> <p>Larraulen norberaren etxean lan egiten dutenen portzentaia, Gipuzkoako batezbestekoa baino altuagoa da. Norberaren etxean lan egiten dutenen gehiengoa, nekazaritzako sektorean lan egiten dutenak direla pentsa dezakegu. Esan dugun moduan, norberaren herrian lan egiten dutenen portzentaia txikiagoa da Gipuzkoako batezbestekoa baino.</p>	
<b>1.3. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegiturak. Bizi kalitatea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herria handitzearen inguruan iritzi desberdinak daude. Batzuk ondo ikusten dute herria handitzea, beti ere nortasuna mantenduz, eta besteek ez dute herria handitzerik nahi, herriak txikia izaten jarrai dezan nahi dute.</li> <li>▪ Batzuen ustez, etxebizitzaren sustapen berriak herrigunearen konfigurazioa okerrera aldatuko</li> </ul>	<p><b>1.3.1. Etxebizitza</b></p> <p><b>1.3.1.1 Etxebizitza kopurua, eboluzioa eta motak</b></p>


**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

du, plaza itoko duela iruditzen zaie eta.

- Etxebizitza sustapen berria aprobetxatuz, batzuk bertan haurren parkea eraikitzea proposatzen dute, gaur egun parkea errepide ondoa baitago, eta han babestuagoa egongo litzateke.
- Hainbaten ustez, etxebizitza berriek itxura sinplea izan dezaten saiatu behar da, ez hain garestiak izateko.
- ARAZO LARRI GISA AGERI DA ETXEBIZITZA SUSTAPEN BERRIEK, HERRIAREN ERDIGUNEKO KONFIGURAZIOA OKERRERA ALDATZEA, PLAZA ITOTA UTZIZ.
- LEHENTASUNEZKO MODUAN IKUSTEN DA HERRIAK ZENBAT HAZI BEHAR LUKEN INGURUAN HAUSNARKETA/EZTABAIDA SERIO BAT EGIN BEHARRA.
- ETXEBIZITZEN ITXURARI DAGOKIONEZ, ITXURA SINPLEAGOA IZAN BEHAR DUTELA USTE DA, MERKEAGOAK IZAN DAITEZEN. EZ DA LEHENTASUNEKO ARAZOTZAT JOTZEN BAINA AHAZTU BEHAR EZ DENA.
- ETXE BERRIAK APROBETXATUZ, HAUEN ERDIGUNEAN, HAUR TXIKIAGOENTZAKO PARKEXOREN BAT PRESTATZEKO IDEIAREKIN ADOS DAUDE.
- Batzuk, etxebizitza berriak egiteko, zaharrak botatzea gaizki ikusten dute.
- Gehienen ustez, etxebizitza sustapen berriaren bolumena handiegia izan da. Urte askotan etxebizitza gutxi egin ondoren, kolpez gehitxo egingo direla uste da.
- Gehienen ustez ere, herritarrei zuzendutako etxebizitza tasatuen kopurua ez da nahikoa izan, gehiago behar zuten izan. Honek, hainbat herritarrek kanpora bizitzera joan behar izatea ekarriko du.
- Gazteek herrian geratzeko aukera dute gaur egun. Garai batean, herritik alde egin behar izan zuten zenbait gaztek.
- Orokorrean, etxebizitza berriak, bertakoen

**Etxebizitzen kopurua (1991-2001)**

Iturria: Eustat

**Baimendutako etxebizitzak (2000-2005)**

Iturria: Udala

**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

eskaria ase ostean, kanpokoentzat izatea ondo ikusten da.

- ETXEBIZITZA TASATU GUTXIEGI EGIN DIRELA ARAZO MODUAN IKUSTEN DA.
- ETXEBIZITZA BERRIAK EGITEKO LEHENDIK DAUDEN ZAHARRAK BOTATZEA EZ DA EGOKI IKUSTEN.
- HERRIKO GAZTEEK EZIN DITUZTE EZ HERRIKO EZ ETA KANPOKO ETXE BERRIAK EROSI, ETA HERRIAN EGITEN DIREN ETXE BERRIAK LEHENTASUNEZ HERRITARRENTZAKO BEHAR LUKETELA USTE DA.
- Gazteak baserritik joan egiten dira eta baserrietan adinduak geratzen dira. Hauek hiltzean baserriak hutsik geratuko dira.
- Orokorrean, baserriak husten ari direla uste dute herritarrek. Honi aurre egiteko, baserrietan 2-3 etxebizitza eraikitzen uztea ondo ikusten da.
- BASERRIAK HUTSIK GERATZEN ARI DIRA ETA HAU ARAZO MODUAN IKUSTEN DA.
- BASERRIAN BERTAN EDO ONDOAN ETXEBIZITZA ANTOLATZEKO AUKERA EMANEZ GERO, JENDE GAZTEA BERTAN GERATUKO LITZATEKEELA BIZITZEN USTE DA.

- Hainbatek kezka azaldu du etxebizitzaren sustapena udalaren finantziario bide moduan ikustearen inguruan. Etxebizitza berriek azpiegitura berriak eskatzen dituztenez,

Etxebizitzaren kopurua gorantz joan da 1991tik hona.

2001etik 2003ra bitartean etxebizitzarik egin ez zen arren, ondoren 37 etxebizitza berri baimendu da.


2000. urtean baimendutako etxebizitza guztiak tasatuak izan arren, ondoren egindako gehienak libreak izan dira.

Larraulgo AASSen, Hiri Antolamenduko Arauen azken testu bateratua 2003koa dira.

AASS etxebizitzak egiteko prestatu ziren lur guztietan jada etxeak eraiki dira edo eraikitzen ari dira. Herrigunean eraikitzeke aukera guztiak oso denbora gutxian agortu dira, etxe guztiak batera egin direlako.

**1.3.1.2. Etxebizitza motak**

Eskualdearekin eta Gipuzkoarekin konparatuz, Larraulen, bigarren etxebizitzaren portzentaia baxua da, eta okupatu gabeko etxebizitzena, berriz, altua.

**1.3.1.3. Etxebizitza aurreikuspenak**

2005eko datuen arabera 2005ean 13 etxebizitza libre egiteko baimena eman da. AASSen aldaketa baino

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

etxebizitza gehiago egin beharko litzateke behar horiek asetzeko, eta honek eraikuntzaren espiral bat ekar lezake.


- Gehienen ustez ere, herritarrei zuzendutako etxebizitza tasatuen kopurua ez da nahikoa izan, gehiago behar zuten izan. Honek, hainbat herritarrek kanpora bizitzera joan behar izatea ekarriko du.
- ETXEBIZITZEN SUSTAPENA UDALAREN FINANTZIAZIORAKO BIDE BEZALA, ETA ETXEBIZITZA GEHIAGO EGITEA, ARAZO BIHUR DAITEKEELA USTE DA.
- ETXEBIZITZA TASATU GUTXIEGI EGIN DIRELA ARAZO MODUAN IKUSTEN DA

lehenago onartutako bi etxebizitzaren proiektua ere jada martxan da.

Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzekeko Lurraldearen Arloko Planaren aurrerapen fasean ageri denaren arabera, Larraularen lehendik dagoen parkea hobetzea eta berreskuratzeko oinarritzeko politika, birgaitze isolatuaren bidez egingo dela aurreikusten da Planean. Dena dela, ez dira baztertzeko eskari antolatua oinarritzat duten aukerako jarduerak.

## 1.3.1.4. Etxebizitza bakoitzeko biztanle kopurua

Ondoko grafikoa ikusten den moduan, 1996tik 2004ra, kide asko dituzten etxebizitzaren kopurua gutxitu egin da, 2 kide dituztenak gutxiengo izatetik gehiengo izatera pasa dira, eta 3-4 biztanlekoak nabarmen hazi dira.






## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Hala ere, Tolosaldea eta Gipuzkoako batezbesteko etxebizitzaren pertsona kopuruarekin alderatuz, Larraulen, pertsona kopuru altuko etxebizitzaren portzentaia handiagoa da, eta pertsona bakarrekoena, berriz, txikiagoa.

Pertsona kopurua etxebizitzako (2004)




Iturria:Gipuzkoako udal web. orria

- Etxebizitzari lotutako azpiegituren inguruan ez da kexarik, orokorrean. Saneamendurako hobi kolektiboa ondo baloratua dago. Herrigunetik kanpo "boca de riego" direlakoak egon beharko lukete, batzuen ustez.
- HERRIGUNETIK KANPO UREZTATZE AHORIK EZ EGOTEA ARAZOA DELA ADOSTU ARREN, EZ DA LARRITZAT JOTZEN.

## 1.3.1.5. Etxebizitzaren erosotasun indizea

Ekipamendua eta konfort-adierazleak (2001)



Iturria:Eustat


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
	<p>Eustaten datuekin osatutako grafiko honetan gasik ez dagoela adierazi arren, udaletik jakinarazi digute, 2001. urterako Larraulen gasa zegoela.</p> <p>2001ean, Larraulen erosotasun indize baxuagoa zegoen EAEn baino. Berogailu zehatza, hau da gelaren bat berotzen duen aparailu kopurua ere, Tolosaldeako, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoarekin alderatuta baxua da. Erosotasun-indize baxua, ekipamendu batzuen gabeziak eta gainerako instalazioen portzentaia baxuagoa izateak eragiten du.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herritik kanpo erosketak egitera oso ohituta daude, batez ere kanpora lanera doazenak. Horregatik, dendaren beharrik ez da sumatzen. Adinduak lirateke oinarrizko zerbitzu hauek faltan gehien botatzen dituztenak.</li> <li>▪ Hala ere, denda bat ipintzea ondo legokeela uste dute gehienek. Hori bai, dendaren bideragarritasuna oso zaila ikusten da, populazioa urria delako. Agian, etxebizitza berrietara etorriko direnek aldaketa bat suposatuko dute zentzu honetan. Gainera, dendan egon beharko luketen gauzak puntualak direnez, zailtasunak leudeke denen gustuak ondo asetzeko.</li> <li>▪ Egotekotan, dendak tabernari lotuta egon beharko luke, eta batzuen ustez, udalaren laguntza beharrezkoa litzateke. Jende helduarentzat kutxazain bat izatea ez legoke gaizki.</li> <li>▪ Telefono publikoa ostatuan soilik dago, eta hau itxita dagoenean zerbitzu hau gabe geratzen da herria.</li> <li>▪ Harategia eta farmazia ipintzea interesgarria izan arren, ez da uste jende nahikoa dagoenik herrian horiek mantentzeko.</li> </ul>	<p><b>1.3.2. <u>Oinarrizko zerbitzuak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herrian ez dago dendarik: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ogia etxeetara banatzen du egunero okindegi batek, prentsarekin batera.</li> <li>○ Denda ibiltariak: fruta saltzaile eta arrain saltzailea ez dira etortzen, aldiz, izoztutako produktuen banatzailea, deituz gero etortzen da.</li> </ul> </li> <li>▪ Kutxazainik ez dago, gertuenekoa Asteasukoa da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean, herrian lehen mailako ikasketak burutzeko ikastetxea ezartzea ondo ikusten da, honetarako behar adina haur badaude. Askoren ustez, ikastetxea eratzeak koadrila sorrera erraztuko luke, eta honek herri giroa bultzatu.</li> <li>▪ Askok garrantzi handia ematen diete eskolaz kanpoko aktibitateei, hauei esker herriko</li> </ul>	<p><b>1.3.3. <u>Hezkuntza</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herrian ez dago ikastetxerik.</li> <li>▪ Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Asteasun egiten dira.</li> <li>▪ Haurrak eskolara eramateko autobusa Hezkuntza Sailak ordaintzen du eta plazan biltzen ditu</li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p>haurrek arratsaldea behintzat batera igarotzen dutelako, beren arteko harremanak sendotuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuen ustez, haurtzaindegia ondo egongo litzateke, bikote gazteentzat, orain haur gehiago baitago herrian.</li> <li>▪ Orain, haurrak Asteasuko bide gurutzean hartzen ditu autobusak, eta orokorrean, bertaraino haur bakoitza bere gurasoek gerturatzten dute. Hau DBH egitera Villabona-Amasara joaten direnen kasuan gertatzen da.</li> <li>▪ HERRIAN LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA BURUTU AHAL IZATEKO IKASTETXERIK EZ EGOTEA ARAZO LARRITZAT JOTZEN DA.</li> <li>▪ BESTALDE, HAURTZAINDEGIRIK EZ IZATEA, ETA DBHKO IKASLEAK VILLABONA-AMASAKO ESKOLARA JOATEKO, GARRAIOA ASTEASUKO BIDEAN HARTU AHAL IZATEKO BERTARAINO HAUR BAKOITZAREN GURASOEN GERTURATZEA, EZ DIRA ARAZO LARRITZAT IKUSTEN.</li> <li>▪ KOADRILARIK EZ IZATEA ARAZOA DA ETA HERRI GIROAN ERAGITEN DUELA GARBI IKUSTEN DA, BAINA ARAZO HAU LASTER KONPONDUKO DENAREN USTEAN DAUDE.</li> </ul>	<p>umeak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gaur egun Asteasuko eskolan Larraulgo 20-22 haur daude matrikulatuta, 3 eta 12 urte artekoak.</li> <li>▪ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berriz, Villabona-Amasan, Tolosan... egiten dute.</li> <li>▪ Haurtzaindegirik ez dago.</li> <li>▪ Herriko zenbait haurrek ez dute Asteasuko jangelan jaten eta eguerdian gurasoek, txandaka, autoz igotzen dituzte.</li> <li>▪ Haurrak Asteasuko eskolatik itzultzeko, autobusa lehendabizi Andazarrate aldera joaten denez eta gero Larraulera, zenbait gurasok haurrak autoz igotzen dituzte.</li> </ul> <p>Eskolarik ez dagoenez, Guraso Elkarerik ere ez dago, baina bai guraso talde bat, haurren inguruan ekintzak antolatzeke garaian mugitzen dena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskolaz kanpoko aktibitateak Aiztondo Mankomunitateak antolatzen ditu herrian eta Udalak finantzatu arren, onuradunak ere kuota bat ordaindu behar du: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Astelehenetan ludoteka.</li> <li>○ Astearteetan "Kirola ezagutuz".</li> <li>○ Asteazkenetan musika (Loatzo Musika Mankomunitatearekin funtzionatzen zuten orain arte, baina Mankomunitate barruan ez daudenez, zerbitzua ez dute emango Larraulen. Beste musika eskola batekin daude kontaktuak zerbitzua lortu ahal izateko).</li> <li>○ Ostegunetan antzerkia.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>1.3.3.1. Ikasketa eremu bakoitzeko ikasle kopurua</b></p>

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA


Ikasketa eremu bakoitzeko ikasle kopurua  
(1986-2001)

Iturria: Eustat

Normala den moduan, 1996tik aurrera biztanleriak gora egin duenetik, ikasle kopurua hazi da. Oso nabarmena da 1986tik 1996ra izan den eskolaurrea eta lehen mailako ikasleen murrizketa, ondoren igoera handia gertatuz.

## 1.3.3.2. Biztanleriaren eskolatze maila

Biztanleriaren eskolatze maila (1986-2001)



Iturria: Eustat


Biztanleriaren eskolatze mailari dagokionez, lanbide heziketako, bigarren mailako eta erdi edo goi mailako ikasketak burutzen dituztenen portzentaiek gora egin

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

dute.



Ikasketa mailari dagokionez EAEn, lanbide-heziketatik gorako ikasketak dituztenen portzentaia altuagoa da Larraulgoa baino. Bestalde, ikasketarik gabeko inor ez dago Larraulen, eta Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAEn, aldiz, bai. Hala eta guztiz, azken urteetako joera ikusita, Larraulen geroz eta ikasketa maila altuagoko biztanleria antzematen da.

- Orokorrean, osasun zerbitzuetarako Asteasura jotzen oso ohituta daude, eta astean behin sendagilea Larraulen egoteari ez diote mesede handirik ikusten. Azken batean, astean behin bakarrik izanda, gehienetan Asteasura jo beharko lukete, eta sendagilea Larraulgo erdigunean balego, baserrietako biztanleek autoa hartu beharko lukete, edozein moduz. Gainera, baten batek dio kontuan izan behar dela asteasuar askok baino gertuago dutela sendagilea Larraulgo biztanleek.
- Gehienek diotenez, adinduek dituzte zailtasun gehienak sendagileria joateko orduan, eta ondo ikusten dira hauentzat dauden bono-taxi modukoak.
- Botikara Asteasura edo Villabona-Amasara joaten dira, eta gehienek ez dute uste Larraulen

**1.3.4. Osasuna****1.3.4.1. Udalerriko osasun zerbitzua: ekipamenduak eta giza baliabideak**

- Herrira ez da sendagilerik etortzen, Asteasura jaisten dira herritarrak. Erizaina ere bertan egoten da.
- Gaixoak ezin badu mugitu, sendagilea etxera etortzen da.
- Pediatrarengana, Villabona-Amasako osasun zentrora joaten dira.
- Herrian ez dago farmaziarik, gertuen dagoena Asteasukoa da.
- Larrialdi zerbitzua Tolosan dago.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK										
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>											
<p>jartzerik legokeenik.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Larrialdi egoeretarako antolakuntza hobea behar dela dio baten batek.</li> </ul>	<p><b>1.3.4.2. Eskualde mailako zerbitzua.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tolosako “Clínica Nuestra Señora de la Asunción” da eskualde mailako zerbitzua ematen duena.</li> <li>▪ Osasun Zentro txikietan egoten ez diren espezialisten zerbitzua, Tolosako Anbulatorioetik bideratzen da. Espezialistengana joan ahal izateko, itxaron zerrenda luzeak eraten dira.</li> </ul>										
	<p><b>1.3.5. <u>Gizarte zerbitzuak</u></b></p> <p><b>1.3.5.1. Gizarte ongizateko Udal aurrekontua</b></p> <table border="1" data-bbox="799 887 1426 1218"> <thead> <tr> <th data-bbox="799 887 890 1003">Udalak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenak</th> <th data-bbox="890 887 1214 1003">Gastua/biztanle</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="799 1003 890 1055">2002</td> <td data-bbox="890 1003 1214 1055">26.353,25 €</td> </tr> <tr> <td data-bbox="799 1055 890 1106">2003</td> <td data-bbox="890 1055 1214 1106">32.472,12 €</td> </tr> <tr> <td data-bbox="799 1106 890 1158">2004</td> <td data-bbox="890 1106 1214 1158">28.370,32 €</td> </tr> <tr> <td data-bbox="799 1158 890 1218">2005</td> <td data-bbox="890 1158 1214 1218">30.000 €* 169,49 €* Iturria: Udala *: 2005eko aurrekontua</td> </tr> </tbody> </table> <p>Nahiz eta udalak Aiztondo Mankomunitateari egindako ekarpenak goranzko joera erakutsi, biztanleria handitu denez, biztanleko udalak gizarte zerbitzuetan egiten duen gastuak beherantz egin du. Udalak ez du biztanleria igo den neurri berean gizarte zerbitzuei dagokien gastua igo, biztanle berriek ez baitute gizarte zerbitzuen beharrik, haurrak eta gazteak direlako. Aurrerago ikusiko dugu etxex-etxeko laguntza zerbitzuaren eskaera handitu dela, baina honek ere ez du zertan udalaren gastua handitu beharrik, udalak autonomoak diren pertsonen emandako zerbitzua ordaintzen baitu, eta zerbitzua behar dutenak pertsona dependenteak direnean berriz, gastuak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen ditu.</p> <p><b>1.3.5.2. Gizarte ongizateko problematika</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gizarte ongizateko problematika garrantzitsuenak hirugarren adinekoenak eta elbarrituenak dira Larraulen. Elbarri bezala kalifikatua izateko, %33a baino gehiagoko elbarritasuna izan behar du</li> </ul>	Udalak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenak	Gastua/biztanle	2002	26.353,25 €	2003	32.472,12 €	2004	28.370,32 €	2005	30.000 €* 169,49 €* Iturria: Udala *: 2005eko aurrekontua
Udalak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenak	Gastua/biztanle										
2002	26.353,25 €										
2003	32.472,12 €										
2004	28.370,32 €										
2005	30.000 €* 169,49 €* Iturria: Udala *: 2005eko aurrekontua										

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gehienek gizarte laguntza beharrezkoa den zerbait bezala ikusten dute, eta laguntzaren inguruko informazioa eskura dutela iruditzen zaie.</li> <li>▪ Hala ere, zerbitzu hauen erabiltzaile izan litezkeen askok nahiago dute laguntza familiarik jasotzea, kanpoko norbaitengandik baino. Batzuen ustez, gaiaren inguruko tabu bat bada.</li> <li>▪ Gehienek ustez, zerbitzu hauen behar gehien dutenak etxean bakarrik bizi diren adinduak dira. Hauetako askok nahiago dute zahar-etxera joan baino, etxean laguntza jasotzea.</li> <li>▪ Batzuen ustez, balioanitzeko eraikinean adinduentzat ezer prestatzerik ez dago. Beste batzuk diote bertan adinduentzat eguneko zentro bat egon litekeela.</li> </ul>	<p>pertsonak. Kalifikazio hau duten 13 pertsona daude Larraulen gaur egun, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazi digunez.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Etorकिन kasuren bat ere eman da.</li> </ul> <p><b>1.3.5.3. Gizarte ongizateko zerbitzuen eskaintza eta erabiltzaileak</b></p> <p>Kontuan izan behar dugu, Aiztondo Kultur eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea dela.</p> <p>Balioanitzeko eraikinean aurreikusten den zerbitzuetako bat, gizarte langilearentzako bulegoa da. Balioanitzeko eraikinean igogailua izango da bulegora heltzeko, udaletxean ez bezala.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aiztondo Mankomunitateko gizarte langilea astelehenetan izaten da udaletxean, 12:00etatik 13:00etara. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Etxez-etxeko laguntza: mendetasuna duten 3 pertsona eta pertsona autonomo bati ematen zaie.</li> <li>○ Larraulen ez dago eguneko zentrorik. Gertuen dagoena Villabona-Amasakoa da, Fraisorokoa. Hala ere, azken 20 urteetan ez da eskari bakar bat bera ere egon.</li> <li>○ Etxebizitza tutelaturik ere ez dago. Gertuen daudenak Asteasuko baserri babestua eta Zizurkilgo pisu babestua dira.</li> <li>○ Tele-Alarmaren eskaera oso urria da. Mankomunitateak tramitazioa bakarrik egiten du, gastua udalaren eta onuradunaren gain gelditzen da.</li> <li>○ Bono-taxi zerbitzua: berez mugikortasun arazoak dituztenentzako da zerbitzu hau, baina herri txikietan nahikoa da norberak autorik ez izatea, 12 urtetik gora izatea eta gizarte-laguntzaileak beharraren berri emanaz txosten bat egitea. Hileko gehienez 60 € ematen zaizkio taxiaren erabiltzaileari.</li> <li>○ Asteasuko eskolan egiten den Guraso Eskolara Larraulgo haurren gurasoak ere joaten dira.</li> </ul> </li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																								
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>																									
	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Asteasuko eskolan haurrenganako tratu txarrak detektatzeko ikastaroa eman diete irakasleei (Larraulgo haurrak ere ikastaro honen onuradunak dira).</li> </ul> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #006633; color: white;"> <th colspan="4" style="text-align: center;">Gizarte ongizate zerbitzuek eskainitako laguntza (Pertsona kopurua)</th> </tr> <tr> <th></th> <th style="text-align: center;">2002</th> <th style="text-align: center;">2003</th> <th style="text-align: center;">2004</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td><b>Oinarrizko Errenta</b></td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">0</td> <td style="text-align: center;">0</td> </tr> <tr> <td><b>Gizarte larrialdietarako laguntza</b></td> <td style="text-align: center;">0</td> <td style="text-align: center;">0</td> <td style="text-align: center;">0</td> </tr> <tr> <td><b>Etxez etxeko laguntza zerbitzua</b></td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">4</td> </tr> <tr> <td colspan="4">Iturria: Aiztondo Zerbitzua Mankomunitatea</td> </tr> </tbody> </table>	Gizarte ongizate zerbitzuek eskainitako laguntza (Pertsona kopurua)					2002	2003	2004	<b>Oinarrizko Errenta</b>	2	0	0	<b>Gizarte larrialdietarako laguntza</b>	0	0	0	<b>Etxez etxeko laguntza zerbitzua</b>	1	2	4	Iturria: Aiztondo Zerbitzua Mankomunitatea			
Gizarte ongizate zerbitzuek eskainitako laguntza (Pertsona kopurua)																									
	2002	2003	2004																						
<b>Oinarrizko Errenta</b>	2	0	0																						
<b>Gizarte larrialdietarako laguntza</b>	0	0	0																						
<b>Etxez etxeko laguntza zerbitzua</b>	1	2	4																						
Iturria: Aiztondo Zerbitzua Mankomunitatea																									
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Etxebizitzetarako dagokienaz, azken hiruzpalau urteetan etxebizitza ugari egin dira, eta askoren ustez bat-batean gehiegiz egin dira. Gainera, erdigunearen konfigurazioa zeharo aldatzen ari dela iruditzen zaie gehieni. Arazo larri gisa ikusten da erdiguneko konfigurazio aldaketa eta herriaren hazkuntzaren inguruko eztabaida beharrezkoa dela ikusi da Herri Batzarrean. Etxebizitza sustapen berria aprobetxatuz, haurren parkea bertan eraikitzea proposatzen dute batzuk. Etxebizitzaren gaia garrantzitsua da Larraulen, jendeak ikuspegi desberdina baitu. Askoren iritziz, eraiki diren etxe berri hauek kanpoko jendea etorri da, eta bertakoentzat etxebizitza tasatu gutxi egin dira. Azken hau arazo moduan identifikatu da Herri Batzarrean. Etxeak egiterakoan bertakoek lehentasuna izan behar dutela uste da, eta herriko gazteek etxeak lortzeko dituzten arazoak murrizten lagundu behar dela adostu da Herri Batzarrean.</p> <p>Gipuzkoako batezbestekoarekin konparatuz, Larraulen etxebizitza huts gehiago dago, eta bigarren etxebizitzaren fenomenorik ez da ageri. Baserriak hutsik geratzea arazo moduan identifikatu da Herri Batzarrean.</p> <p>Etxebizitza bakoitzean bizi den kide kopuruari begiratuz, azken hamarkadan 2 biztanle dituztenak gutxiengo izatek gehiago izatera igaro direla ikusten dugu, eta 3-4 kidekoak nabarmen hazi dira. Hala ere, Gipuzkoako batezbestekoarekin konparatuz, Larraulen pertsona kopuru handia bizi diren etxebizitzak ugariagoak dira, eta pertsona bakarrekoak urriagoak.</p> <p>Herriko zerbitzu orokorren inguruan, jendea oso ohitua dago denda, kutxazaina eta abar beste herrietan bilatzen. Ez dago eskari berezirik, baina zerbitzu hauek ipintzea ez da gaizki ikusten, biztanleria urria dela eta, bideragarritasun zaila ikusten zaien arren. Denda egotekotan, tabernari lotua ikusten dute gehienek. Batzuk diote telefono publikoak ostatutik kanpo egon behar lukeela, hau itxita dagoenean ere erabili ahal izateko.</p> <p>Orokorrean, herrian lehen mailako ikasketak burutzeko ikastetxea jartzea ondo ikusten da eta Herri Batzarrean lehentasuneko dela adostu da. Askok diote herritarren erlazioak sendotuko lituzkeela honek. Haurtzaindegia beharra ikusten dute zenbaitek, herriko bikote gazteen kopurua handitu dela ikusiz. Eskolaz kanpoko aktibitateei garrantzi handia ematen diete gehienek, herriko haurren arteko loturak</p>																									



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p>sendotzen dituztelako, koadrilen sorrera bultzatuz, baina arazo hau laster konponduko denaren ustea azaldu da Herri Batzarrean. Datuei begira, ikasle kopurua hazi egin da azken urteetan, eta bigarren mailatik gorakoen kopuruak ere gora egin du.</p>	
<p>Osasun zerbitzuei dagokienez, herrian ez da zerbitzurik, eta orokorrean elkarrizketatuen aldetik ere ez dago eskaririk. Osasun zerbitzuen bila kanpora joaten oso ohiturik daude, eta gehienek ez diote abantailarik ikusten herrian sendagilea astean behin izateari.</p>	
<p>Gizarte zerbitzuen inguruan, aitortzen da eskura daudela jakin arren, behar lituzketen askok nahiago dutela etxeoengana jotzea. Gizarte ongizateko problematika batez ere adinduek eta elbarrituek osatzen dute Larraulen. Adinduen kopurua garrantzitsua izan arren, gizarte zerbitzuen eskari handirik ez da izan. Gizarte ongizaterako udalaren gastua, 2002. urtetik hona kopuruan handitu den arren, biztanleko egiten den gastua geroz eta baxuagoa da; hau da, biztanleria proportzio handiagoan hazi da gizarte ongizateko gastua baino. Egia da ere biztanleriaren hazkuntza gizarte zerbitzu gutxi behar dituztenek osatu dutela (haurrak eta gazteak).</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Museoa orokorrean ondo ikusten da, baina gehiago bultzatu beharko litzateke. Museoa dauden zenbait gauza herritarrek beraiek emanikoak dira. Hala eta guztiz, batzuk ez dira sekula joan museora.</li> <li>▪ Museoa, herritarren artean irekitzen saiatu ziren, baina ez zuen funtzionatu. Tabernaren kargu museoa geratzeak ere ez du funtzionatu.</li> <li>▪ MUSEOAREN ETORKIZUNA ARAZO LARRI MODUAN IKUSTEN DA ETA ZERBAIT EGITEKO BEHARRA DAGOELA BERRESTEN DA. AUZOLANA PROPOSATZEN DUTE IREKITA EDUKITZEKO MODU GISA, EDOTA LEKU IREKIAGO BATEAN KOKATZEA, INOREN BEHARRIK EZ IZATEKO.</li> </ul>	<p><b>1.3.6. Kultura</b></p> <p><b>1.3.6.1. Ondare kulturala</b></p> <p>Udalerrri honetako Balizko Arkeologia Guneak honako 8 elementu hauek dira (EHAA 221, 1998/11/18):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ San Esteban parrokiako eliza.</li> <li>▪ Zabaleta, Beobide, Labakane, Sorarrain eta Olatza baserriak.</li> <li>▪ San Cruz basiliza (ez zaio egiturarik ikusten).</li> <li>▪ Olazar burdinola (hondatuta).</li> </ul> <p>Zona, orube edo eraikin hauetan aurkitutako zenbait aztarna garrantzitsu aztertuta, bertan arkeologia-aztarnategi bat dagoela esan daiteke. Hala ere, arkeologia-aztarna hauek zein egoeratan kontserbatu diren eta berauen balioa ez dira ezagutzen, izan ere, orain artean ez baita indusketa sistematikorik egin.</p> <p>Aipatutakoez gain, nahiz eta, babestutako kultur ondarearen zerrendan ez izan, garrantzizko kultur ondareak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Txuringadiko errota.</li> <li>▪ Museo etnografikoa: erakusgai dauden piezak garai ezberdinetakoak dira eta baserriko bizitza, ohitura eta monumentu ezberdinak agertzen dituzte. Hau guztia hobeto agertzeko asmoz badira informazio panelak, hainbat argazki eta jolas didaktikoak ere. Horretaz gain, museoko gela ondoan mota ezberdineko artelanak: pinturak, egurrez eginiko irudiak... egoten ziren erakusgai,</li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean, balioanitzeko eraikina ondo ikusten da, baina gutxik egiten dituzte bertarako proposamenak. Ideiak ematen dituztenen ustez, eraikin honetan ludoteka, liburutegia, ikastaroak eta antzekoak jar litezke.</li> <li>▪ Gazte gehienek ez omen dute biltzeko lokalaren beharrik sumatzen.</li> <li>▪ Batzuk diote aerobica, soinketa eta antzerakoak egiteko lekua falta dela herrian.</li> <li>▪ Hezkide eskolak herriari bizia ematen diola uste dute gehienek.</li> <li>▪ AEROBICA, SOINKETA ETA ANTZERAKOAK EGITEKO GELA EGOKIRIK EZ DAGOELA ESATEAREKIN ADOS DAUDE. ARAZO MODUAN IKUSTEN DA ETA EKINTZA HAUEK EGITEKO LEKU BAT, BALIOANITZEKO ERAIKINEAN GORDE BEHARKO DELA ESATEN DUTE.</li> <li>▪ GAUR EGUN GAZTEENTZAKO LOKAL BAT JARTZEA EZ DA BEHARREZKO IKUSTEN, ETORKIZUNERA BEGIRA AGIAN BAI.</li> <li>▪ HEZKIDE ESKOLARA ETORTZEN DIREN TALDEEKIN INBASIO SENTSazioa izaten dute zenbaitek. ASKOTAN MOLESTIAK SORTZEN DITUZTE HERRIAN BERANDURARTE JOKOETAN IBILTZEN DIRELAKO ZARATA ATEREAZ ETA ZENBAITETAN PARKE INGURUAN ZIKINAK UZTEN DITUZTELAKO.</li> <li>▪ Herriko jaiak udalaren eta herritar batzuen artean antolatuak dira. Herriko jaietan gazteentzat ekintza gehiago antolatu behar</li> </ul>	<p>baina gaur egun, Katilutxulo Elkartea finkatzeko erabili da gela hau.</p> <p><b>1.3.6.2. Kultur ekipamenduak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kultur ekintzak udaletxearen goiko solairuan egiten dira.</li> <li>▪ Kultur dinamizatzailea Aiztondo Mankomunitatekoa da eta asteazken arratsaldeetan egoten da herrian 17:30etatik 19:30etara.</li> <li>▪ Ordu eta egun horretan, liburutegia zabalik izaten da.</li> <li>▪ Mankomunitate mailan ere hainbat ekintza egiten dira lau herrietan (Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkil): <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ipuin kontalariak.</li> <li>○ Udaleku irekiak udan.</li> <li>○ Eguberrietarako egun-pasa txangoak.</li> </ul> </li> <li>▪ Ikastaroak Mankomunitate mailan antolatzen dira eta eskaera gehien dagoen herrian ematen dira. Larraulen azken aldian sukaldaritzako hiru ikastaro egin dira, Katilutxulo elkartearen.</li> <li>▪ Helduentzako aktibitateak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Eskulanak egiteko tailer bat osatzeko eskaera dago, baina pertsona gutxiegi dira.</li> <li>○ Yoga: astean behin arratsaldez ordu t'erdiz aritzen dira. Biltzen diren guztiak emakumeak dira.</li> <li>○ Soinketa: astearte goizetan, 9:00etan. 30 urtetik gorako emakumeak biltzen dira.</li> </ul> </li> <li>▪ Hirugarren adinekoentzako aktibitateak: egun pasako txangoak antolatzen dira.</li> <li>▪ Kzguna liburutegian barneratua dago. Udaletxeko bulego ordutegian eta liburutegiko ordutegian irekita egoten da. Tutorea hilean behin etortzen da mintegi bat ematera.</li> </ul> <p><b>1.3.6.3. Jarduera soziokulturalak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Festak: San Estebanetan eta San Bartolometan.</li> <li>▪ Aste kulturala udazkenean, Katilutxulo elkarteak</li> </ul>


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p>direla diote batzuk.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gehienen ustez, haurrentzat ekimen piloa antolatzen da, gaztetxoentzat gutxiago, helduentzat ia batere, eta adinduentzat gutxi. Batzuk diote haurrentzat ekimen gehiegi eta guzti antolatzen direla.</li> <li>▪ Orokorrean, ekintza kultural gutxi antolatzen direla uste da, baina asko beldur dira gehiago antolatuta ere, jendea ez litzatekeela gerturatuko.</li> <li>▪ Orokorrean, helduek ez dute ekintza soziokulturaletan parte hartzeko joerarik, sukaldaritza izan zen funtzionatu zuen ikastaro gutxietarikoak.</li> <li>▪ Gehienen ustez, elkarrekin bizia eman dio herriari, gauzak antolatzen dira elkartetik eta bertako partaideek behintzat parte hartzen dute. Batzuk diote elkartetik kultur ekimen gehiago antolatu beharko liratekeela, bai eta udaletik ere.</li> <li>▪ GAZTETXO, HELDU, ETA ADINDUENTZAT, EKINTZA KULTURAL GUTXI ANTOLATZEN DIRELA AGIAN EGIA DA, BAINA ARAZO LARRIAGOTZAT JOTZEN DUTE EKINTZETAN JENDEAREN PARTEHARTZE ESKASA. HAURRENTZAT EKINTZAK PRESTATZEN DIRA, BERAIEK AMAK ATZETIK DABILTZANEZ PARTE HARTZEA LORTZEN BAITA, BAINA HELDU ETA ADINDUENTZAT BERRIZ EZ.</li> <li>▪ GAZTEENTZAT FESTEN EGITARAUAN EZER GUTXI PRESTATZEAREN ARRAZOIA GAZTE GUTXI DAUDELA OMEN DA.</li> <li>▪ EZ DA ARAZO LARRI GISA IKUSTEN, BAINA KULTUR ELKARTETIK EKINTZA GEHIAGO PRESTATU BEHAR DIRELA USTE DA.</li> </ul>	<p>antolatzen du.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean, ez dago kirol instalazioen inguruko kexarik. Herriko frontoia eta inguruko herrietako aukerak nahikotzat jotzen dira.</li> <li>▪ Duela bi urte arte gazteak pilotan egiteko biltzen ziren, baina badirudi ohitura galdu dela.</li> <li>▪ Aerobiceko ikastaroa eta haurren ekintzak gela</li> </ul>	<p><b>1.3.7. Kirola</b></p> <p><b>1.3.7.1. Kirol instalazioak eta kirol praktika</b></p> <p>Frontoi estalia badute. Bai yoga eta bai soinketa udaletxeko goiko solairuko gela batean egiten dituzte, baina ez dago gimnasiorik.</p>

**HERRITARREN DIAGNOSTIKOA****DATU OBJEKTIBOAK****1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

berdinean burutzen dira, eta batzuk diote gela hau ez dela lekurik egokiena. Aerobica, soinketa eta antzerakoak egiteko lekua falta da herrian.

- Gaztetxoentzat futbol zelai bat eta igerilekua ondo egon daitezkeela uste duenik bada, baina azken hau, ur eskasia dela eta ez da oso bideragarria ikusten.
- GAZTEEK PILOTAN IBILTZEKO OHITURA GALTZEA EZ DA ARAZO BEZALA IKUSTEN, OHITURA GALTZEA BAIZIK, HAU PENA IZAN ARREN, EZ DA ARAZO KONTSIDERATZEN. HALA ERE, PILOTAN BAKARRIK ARITZEA BAINO, ABERASGARRIAGOA IRUDITZEN ZAIE "KIROLA EZAGUTUZ" BEZALAKO EKIMENEN BIDEZ HAURREK KIROL DESBERDINAK EZAGUTZEA.
- AEROBICA, SOINKETA ETA ANTZERAKOAK EGITEKO GELA EGOKIRIK EZ DAGOELA ESATERAKOAN ADOS DAUDE. ARAZO MODUAN IKUSTEN DA ETA EKINTZA HAUEK EGITEKO LEKU BAT, BALIOANITZEKO ERAIKINEAN GORDE BEHARKO DELA ESATEN DUTE.

- Euskara erabili da orain arte, baina erdaldun jendea hasi da etortzen etxe berriak egin direla medio, eta aldaketak etorriko dira. Ez zaio garrantzi gehiegirik ematen aldaketa honi.

**1.3.8. Euskara****1.3.8.1. Euskararen ezagupen mailaren eboluzioa.**


Biztanleriaren %100 euskalduna izatetik, erdaldunak eta ia-euskaldunak agertzerara pasa da 20 urtetan Larraul. Hala ere, euskaldunak gehiengo ia osoa dira.

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Duela urte batzuk AEKren bidez, Asteasun euskara ikastaroa antolatzen saiatu ziren, baina ez zen behar adina jende apuntatu.



Larraulgo biztanleen ama-hizkuntza euskara da, eta etxeetan euskaraz hitz egiten da. EAEn berriz, ama-hizkuntza erdara da eta etxean erdaraz hitz egiten da. Tolosaldea eta Gipuzkoako batezbestekoek Larraul eta EAEn tarteko egoerak erakusten dituzte.

- Orokorrean, mezatara joaten den jende kopurua asko gutxitu dela ikusten da.
- Mezaren orduaren inguruan iritzi desberdinak daude. Batzuentzat goizegi da eta besteentzat berriz ondo dago.
- Batzuk diote eliza egoera txarrean aurkitzen dela, eta eraikinak konponketa batzuk behar dituela.
- Gehienek diotenez, mezatatik atera ostean jendeak biltzeko ohiturarik ez du. Batzuk inguruko herrietara joaten dira mezatatik ateratzean, gosaltzera.
- Batzuk diote eliza garbitzeko jende gutxi biltzen dela.
- ARAZO GISA IKUSI ARREN, LEHENTASUNA HANDIRIK GABEKOA DA, ELIZAREN GARBIKETARAKO JENDE GUTXI BILTZEA. JADA

1.3.9. Erljioa1.3.9.1. **Elizkizun zerbitzuak**

- Meza igandetan goizeko 9:30etan izaten da.
- Elizako garbiketetz, hiletak antolatzeaz... herriko emakume taldetxo bat arduratzen da.

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p>ELIZA GARBITZEN URTE ASKO DARAMATZATENEK ERRELEBOA ESKATZEN DUTE.</p>	<p><b>1.3.9.2. Elizaren ondarea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Erretoretxea: Hezkide Eskolak kudeatzen du (Diagnostikoa Hezkide Eskola izena ematen diogu eraikinari eta ez da horrela. Berezko izena Erretoretxea du eta Hezkide Eskola kudeatzailea da).</li> <li>▪ Eliza</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Parkean haur mordoxka ibiltzen dira, bai eta egunak pasatzera datozen haurrak ere.</li> <li>▪ Tabernetan biltzeko ohiturarik ez dago herrian, gehienek diotenez.</li> <li>▪ Batzuentzat, balioanitzeko gela bat beharko litzateke, bai haur eta bai helduentzat, gauza desberdinak antolatu ahal izateko.</li> <li>▪ Gazteek herrian elkartzeko gunerik ez dute, eta kanpora joaten dira, Villabona-Amasa, Asteasu eta Tolosara, gehienbat.</li> <li>▪ Kultur eraikinak plazatik gertuago egon behar luke, batzuen ustez.</li> <li>▪ IRITZI DESBERDINAK DAUDE HAUR PARKEA DAGOEN LEKUAN UZTEAREN INGURUAN.</li> <li>▪ HERRIAN GAZTE GUTXI DIRELA ETA KANPOAN IKASTEN DUTENEZ, ESKOLAKO LAGUNEKIN OSATZEN DITUZTE KOADRILAK INGURUKO HERRIETAN. BESTALDE, GAUR EGUN GAZTEENTZAKO LOKAL BAT JARTZEA EZ DA BEHARREZKO IKUSTEN, ETORKIZUNERA BEGIRA AGIAN BAI. ORAIN 12 URTE ETA GUTXIAGO DITUZTENAK DEZENTE DIRA ETA HORIEK KOXKORTZEN DIRENEAN ONGI ETORRIKO LITZATEKE, BERAIEN ARTEAN HARREMAN SENDOAGOAK IZAN DITZATEN.</li> <li>▪ EZ DA ARAZO BEZALA IKUSTEN TABERNAN BILTZEKO OHITURA GALTZEA, PENA IZAN ARREN EZ DA ARAZO KONTSIDERATZEN.</li> <li>▪ Etxebizitza sustapen berria aprobetxatuz, batzuk bertan haurren parkea eraikitzea</li> </ul>	<p><b>1.3.10. Aisia</b></p> <p><b>1.3.10.1. Aisialdirako ekipamendu zerrenda</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Frontoia.</li> <li>▪ Parkea: haurrentzako jolaslekua.</li> <li>▪ Liburutegia.</li> <li>▪ Udalak balioanitzeko eraikin bat egiteko proiektua du eskuartean: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Azken aurreproiektuak 570.000€ inguruko aurrekontua definitzen du eta dirulaguntza garrantzitsua lortu du Udalak Ereindik.</li> <li>○ Udaletxearen atzean egingo den urbanizazio berrian kokatuko da.</li> <li>○ Bertan kokatuko liratekeen gelen banaketa ez dago definitua, baina herrian sortzen diren zerbitzu eta beharrei erantzuna emateko lokalak izango dira, ahal bada zerbitzu bat baino gehiago.</li> <li>○ Udalak mailegu bat eskatu beharko du proiektu honi aurre egin ahal izateko.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>1.3.10.2. Haur, gazte eta zaharren aisialdirako jarduerak</b></p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p>proposatzen dute, gaur egun parkea errepide ondoa baitago, eta han babestuagoa egongo litzateke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Haurrentzat nahiko ekintza antolatzen direla uste dute gehienek.</li> <li>▪ Gehienek ustez, haurrentzat ekimen pilo antolatzen da, gaztetxoentzat gutxiago, helduentzat ia batere, eta adinduentzat gutxi. Batzuk diote haurrentzat ekimen gehiegi eta guzti antolatzen direla.</li> <li>▪ Adinduentzat ezer prestatzea zaila ikusten da, aktibitateetan parte hartzeko ohitura handirik ez dutelako. Aitzaki bat behar dute biltzeko. Larrauldik pertsona gutxi doaz adinduentzat antolaturiko irteeratarara. Batzuen ustez, irteera hauetan azalpen gehiegi ematen dira.</li> <li>▪ Baten batzuk proposatzen dute adinduen esperientziarekin ikastaroak prestatzea gazteentzat, edo agian lantegi bat martxan jartzea. Honelako asmo batek herri giroa sor dezakeela uste da.</li> <li>▪ PARKEA DAGOEN LEKUAN UTZI ETA PLAZA BERRIAN HAUR TXIKIAGOENTZAKO PARKEXOREN BAT PRESTATZEKO IDEIAREKIN GUZTIAK ADOS DAUDE.</li> <li>▪ GAZTETXO, HELDU, ETA ADINDUENTZAT, EKINTZA KULTURAL GUTXI ANTOLATZEN DIRELA AGIAN EGIA DA, BAINA ARAZO LARRIAGOTZAT JOTZEN DUTE EKINTZETAN JENDEAREN PARTEHARTZE ESKASARI. HAURRENTZAT EKINTZAK PRESTATZEN DIRA, BERAIEK AMAK ATZETIK DABILTZANEZ, PARTE HARTZEA LORTZEN BAITA.</li> <li>▪ EZ DA ARAZO BEZALA IKUSTEN ADINDUENTZAT ANTOLATURIKO BIDAIETARA, LARRAULGO ADINDU GUTXI JOATEA. HONEN ARRAZOIA OHITURARIK EZA ETA 80 URTETIK GORAKO ASKO DAGOELA DA. LEHEN ASTEASUKOekin JOATEN ZIREN HONELAKO BIDAIETARA ETA HAUEKIN KONTAKTU GEHIAGO ZUTEN. ORAIN BERRIZ, ALKIZA, ZIZURKIL ETA ADUNAKOekin DOAZ.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Haurrak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Parkean, frontoian, plazan...ibiltzen dira.</li> <li>○ Gutxi direnez, jolasteko garaian denak batera ibiltzen dira, nahiz eta adin desberdinetakoak izan.</li> <li>○ Asteazken arratsaldeetan ludotekan eta liburutegian biltzen dira.</li> </ul> </li> <li>▪ Gazteak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Gazteek ez daukate bilgunerik, aisialdi denboran Asteasura edo Villabona-Amasara jotzeko joera dute.</li> <li>○ Gazteen artean ez dago koadrilarik herrian.</li> </ul> </li> <li>▪ Hirugarren adinekoak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Egun bateko txangoak egiten dituzte, Aiztondo Mankomunitateak antolatuta.</li> <li>○ Kultur Astearen taloak egiteko ikastaroa ematen zaie adinduei.</li> <li>○ Festetan elkarteak adinduentzat hamaiketako prestatzen du.</li> </ul> </li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean ez da herri girorik sumatzen Larraulen, nahiz eta, batzuk alderantzizkoa esan. Hau biltzeko ohitura ezarekin lotzen da zuzenean, herritarren ustez.</li> <li>▪ Gehienek diotenez, bakoitzak bere bizia egiten du.</li> <li>▪ Girorik ez egotearen beste arrazoi bat herrian koadrilarik ez egotea litzateke, batzuen ustez.</li> <li>▪ Ostatura edo tabernara joateko ohiturarik ez da. Gainera, tabernen funtzionamendua desorekatua izan dela dioenik ere bada.</li> <li>▪ Orokorrean, gurasoak biltzearen arrazoia seme-alabak izaten dira.</li> <li>▪ Elkartean jendea biltzen da, eta herri girorako positiboa izan den zerbait bezala ikusten dute askok. Elkarreak batez ere gastronomikoki funtzionatzen du, eta ez horrenbeste kultura mailan.</li> <li>▪ Herriko jaiak udalaren eta herritar batzuen artean antolatua dira. Herriko jaietan gazteentzat ekintza gehiago antolatu behar direla diote batzuk.</li> <li>▪ EZ DA ARAZO LARRI GISA IKUSTEN HERRI GIRORIK EZ IZATEA.</li> <li>▪ GAZTEENTZAT FESTEN EGITARAUAN EZER GUTXI PRESTATZEAREN ARRAZOA GAZTE GUTXI DAUDELA OMEN DA.</li> <li>▪ KOADRILARIK EZ IZATEA ARAZOA DA ETA HERRI GIROAN ERAGITEN DUELA GARBI IKUSTEN DA, BAINA ARAZO HAU LASTER KONPONDUKO DENAREN USTEAN DAUDE, GAZTETXO DEZENTE BAITAUDE.</li> <li>▪ TABERNAK GORA-BEHERAK IZAN DITU, NAHIZ ETA AZKEN DENBORALDI HONETAN HOBE FUNTZIONATU.</li> <li>▪ KULTUR ELKARTETIK EKINTZA GEHIAGO PRESTATU BEHAR DIRELA USTE DA, KULTUR ELKARTEARI GEHIAGO ESKATU BEHAR ZAIOLA DIOTE.</li> </ul>	<p><b>1.3.11. Herri giroa</b></p> <p>Herritarrak tabernan biltzen dira eta kanpotarrak berriz Elkartean.</p>



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>1. INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Kultur ondareari dagokionez, nahiz eta arkeologikoki baliotsua den ondarea izan, museoa da aipagarriena elkarrizketatuen iritziz. Gehienek museoa bultzatu beharko litzatekeela uste dute eta Herri Batzarrean lehentasunezko gai moduan sailkatu da, konponbidea zail ikusten duten arren.</p> <p>Kultur ekipamenduei dagokionez, adin guztietako taldeek erabil zezaketen balioanitzeko gela baten falta, eta soinketa eta aerobic egiteko lokalaren falta sumatzen dira, gehienbat. Balioanitzeko eraikinean, gelen banaketa herritarren beharren arabera izan behar duela adierazten da Herri Batzarrean. Gazteek herrian biltzeko tokirik ez dutenez, inguruko herrietara joaten dira, hala ere gaur egun ez da arazo moduan ikusi Herri Batzarrean. Kirol instalazioen inguruan konforme daude gehienak, herriko frontoia eta inguruko herrietako aukera nahikotzat jotzen dira.</p> <p>Gehienen ustez, kultur ekintzak batez ere haurrei zuzendurik daude eta gazte, heldu eta adinduentzat ekintza gehiago behar dira. Hala ere, kontziente dira heldu eta adinduentzat antolatu izan diren ekintzetan pertsona gutxi hartzen dutela parte. Orokorrean, kultur ekintza gutxi antolatzen dela uste da, baina asko beldur dira gehiago antolatuta ere, jendeak ez lukeela parte hartuko eta hau da arazo moduan identifikaturikoa Herri Batzarrean.</p> <p>Gehienen ustez, Katilutxulo elkarteak eragin positiboa izan du herri giroan. Hala ere, elkartearen ekintzak gehienbat gastronomikoak direla ikusten da, eta kultur ekintza gehiago ikusi nahi lituzkete askok.</p> <p>Euskara da gehien erabiltzen den hizkuntza, erdaldunen proportzioa zertxobait handitu den arren. Hala ere, gai honek ez du kezkarik sortzen gehienen artean.</p> <p>Batzuen ustez, meza goizegi da, eta beste batzuk diote ondo dagoela dagoen moduan. Elizako eraikina egoera kaxkarrean dagoela dioenik bada ere. Elizaren garbiketa lanetan geroz eta jende gutxiago lanean ari den arren eta lan honetan dihardutenek erreleboa eskatu, Herri Batzarrean ez da arazo larritzat jo.</p> <p>Gehienen ustez, herri giroa ez da Larraul. Batzuk diote koadrilen faltagatik dela eta hau arazo moduan ikusten da, nahiz laster konponduko dela aipatu den Herri Batzarrean. Herri giro faltaren arrazoia, beste batzuen ustez, tabernetan bizia egiteko ohiturarik ez delako da. Elkarteak herri giroan eragina izan duela antzematen dute gehienek, eta herrian ikastetxerik balego, giro gehiago legokeela uste dute.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>2. INGURUNE NATURALA</b>	
<b>2.1 Naturgune eta elementu natural babestuak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guztiak datoz bat herriko paisaia eta itxura ederra goraiatzeko orduan.</li> <li>▪ Askoren ustez, herriak ez du gehiago hazi behar, eta herriaren itxura ez da aldatu behar.</li> <li>▪ Turismoa bultzatzea ondo ikusten da, beti ere bertako ohiturak errespetatuz.</li> <li>▪ Larraulek aukera desberdinak eskaini ditzake turismoaren ikuspuntutik. Batzuk turismoa bultzatzeko ekintzak proposatu dituzte: Ernioko bidea eta beste oinezko bideak txukuntzea; askaldegia bat prestatzea; Olazar txukuntzea; Txuringadi errota eta beste errota batzuen artean ibilbide bat prestatzea; museoa bultzatzeko egun osoko egitaraua prestatzea (karobiak bisitatzea barne); Leintz-Gatzagan dauden etxolen tankerako batzuk jartzea; nekazalturismoren bat ipintzea...</li> <li>▪ Eraikitzen ari diren etxebizitza berriek erdigunea masifikatzen dutela diote batzuk, herriko nortasun aldatuz.</li> <li>▪ Askoren ustez, mendiak sasiz betetzen ari dira, eta batzuk diote sute arriskua handitzen ari dela.</li> <li>▪ Lursailen repartzelazioaren edo kontzentrazioaren alde daudenak badira, kudeaketa eta mantenua erraztuko lukeelako.</li> <li>▪ ARAZO LARRITZAT BALORATU DA BASERRIAREN GALERA, ETA HONEK ERAGIN ZUZENA DU HERRIAREN PAISAIAN ETA NORTASUNEAN.</li> <li>▪ SUAREN ARRISKUA BAINO, PAISAIAREN GALERA ARAZO LARRIAGOTZAT IKUSTEN DUTE. BATEZ ERE, SASIA NON HAZTEN DEN DA ARAZOA. HERRI INGURUKO SASIA DA ARAZOA, ETA EZ MENDIKOA.</li> </ul>	<p><b>2.1.1. <u>Babestutako naturgune eta elementuen zerrenda, kontserbaziorako arrazoiak, eta babes mota</u></b></p> <p>Ernio-Gatzume</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Espazio-mota: Natura 2000 sareko GKL (Garrantzi Komunitarioko Lekua) (ES2120008)</li> <li>▪ Natura 2000 Sarean arabera dituen interes komunitarioko habitatak: 10 (4 lehentasunezkoak)</li> <li>▪ Azalera: 2.166,1 Ha.</li> <li>▪ Udalerriak: Alkiza, Albiztur, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Tolosa, Larraul eta Asteasu.</li> <li>▪ Eskualdeak: Tolosaldea eta Urola Kosta</li> <li>▪ Bertako landareria: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Bere gailurretan landaredi berezia garatzen da: Kareharrizko harkaitzek mikrohabitat ezberdinak osatzen dituzte eta endemismo piriniar-kantabrikoak aurkitzen dira. <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Amilburuen itzalean eta dolinen barruko freskotasunean, mendi-megaforbio deigarriak aurkitzen dira: <i>Valeriana pyrenaica</i>, <i>Acotinum vulparia</i>, ...</li> </ul> </li> <li>○ Gailurretan elurra desagertzean <i>Gentiana occidentalis</i> eta narziso-espezie ezberdinak loratzen dira</li> <li>○ ...</li> </ul> </li> <li>▪ Bertako fauna: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Gehien nabarmentzen dena mirotz urdina (<i>Circus pygargus</i>) da.</li> <li>○ Belatzak</li> <li>○ Saiak</li> <li>○ Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>)</li> <li>○ Lepahoria</li> </ul> </li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>2. INGURUNE NATURALA</b>	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Erbinudea</li> <li>○ Muxar grisa</li> <li>○ ...</li> </ul> <p>Gune honen interesa Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAAetan) jasotzen zen, Interes Naturalistikoa duten Eremuen Zerrenda Irekiaren baitan.</p> <p>Natura 2000 sarearen baitan dagoen Ernio-Gatzume espazioaren gehiengoa Oria ibaiaren arroaren barruan dago, eta bertako ibaiertzak lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertz izendatzen ditu behin-betiko onespena duen EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak.</p> <p>Lurraldearen Arloko Plan (LAP) honen arabera, landaretza egoera onean dago Asteasu adarrean, eta Larraul eta Alkiza azpi-arro honen baitan daude (29 km<sup>2</sup>). Asteasu adarretan Akuiferoen zaurgarritasun altu edo oso altuko eremuak izendatzen ditu LAPak eta ez du berreskuratzeko premia duen ertzik identifikatu.</p> <p>Hirigintzaren ikuspuntutik, Asteasu erreka azpi-arroari dagozkion Larraulgo lurrak, landa eremuko ertz moduan izendatzen ditu LAP honek.</p>
<b>2.2 Ondare naturala eta paisaia kontserbatzeko intereseko eremuak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Baten batek partzelen kontzentrazio prozesu bat martxan jartzea proposatzen du, lursailak kudeatzeko eta garbi mantentzeko dauden arazoak direla eta.</li> </ul>	<p><b>2.2.1. <u>Interesgarriak izan arren babestu gabe dauden eremuen zerrenda eta deskribapen laburra</u></b></p> <p>Ez dago daturik.</p>
<b>2.3 Suteak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk diote pinuen eta sasien hedapena dela medio, suteen arriskua handitu dela.</li> <li>▪ Suteei aurre egiteko herrian ez dago antolaketarik, udala arduratzen da.</li> <li>▪ Garai batean zabaldua zegoen auzolanaren praktika galtzen doala uste da, eta ohitura hau berreskuratzea zaila dela.</li> <li>▪ PINU LANDAKETEN UGARITZEA EZ DA ARAZO MODUAN IKUSTEN.</li> </ul>	<p><b>2.3.1. <u>Baso suteak</u></b></p> <p>1994-2005 bitartean 2 baso sute izan dira herrian, biak nahita eragindakoak. Sute hauetan 3,7 baso Ha. erre dira.</p> <p>Udalak baserri inguruetan ureztatze ahoak ezarri nahi ditu.</p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>2. INGURUNE NATURALA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ SASIA NON HAZTEN DEN DA ARAZOA. HERRI INGURUKO SASIA ARAZOA DA, BAINA EZ MENDIKOA.</li> <li>▪ ARAZOTZAT IKUSTEN DA AUZOLANDEGIEN GALERA.</li> </ul>	
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Ingurune naturalari dagokionez, gehienak bat datoz herriaren itxura goraiatzeko orduan, eta bertan dituzten natur elementuak gogoko dituzte. Herriak bere nortasuna manten dezan nahi da. Baserriaren galera arazo larritzat baloratua izan da Herri Batzarrean. Lursailak zakartzen ari direla ikusten dute askok, eta honen ondorioz suteen arriskuak gora egin dezakeela. Paisaiaren mantenua lehentasunezko gai moduan agertu da Herri Batzarrean. Herri inguruan hazten den sasiaren inguruko gaia da arazo moduan ikusten dena.</p> <p>Babestutako naturgune garrantzitsuena Ernio-Gatzume da, Natura 2000 Sarean sartua dagoen Garrantzi Komunitarioko Lekua. Turismoa bultzatzeko ekimenen artean, baten batek egindako proposamenetan ageri da naturgune hau.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK												
<b>3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</b>													
<b>3.1 Errepide sarea</b>													
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Errepideak egoera onean daudela diote elkarrizketatu gehienek. Orain dauden biztanle kopururako ondo moldatzeko moduan dago erdigunera iristen den bidea, baina etxebizitza berriak betetzean nahikoa izango ote den duda dute batzuk.</li> <li>▪ Batzuk diote autoak azkarregi ibiltzen direla herriko errepideetan.</li> <li>▪ Gehienek diote istripurik ez dela izaten.</li> <li>▪ Elurteen aurrean, askok diote nahiko ongi moldatzen dela herria, errepideak garaiz garbituz, baina bada kexu denik ere.</li> <li>▪ <b>ARAZO LARRITZAT IKUSTEN DA JENDEAK PLAZA INGURUAN OSO AZKAR GIDATZEA.</b></li> <li>▪ <b>ELURTEAK DIRELA MEDIO EGITEN DEN BIDE GARBIKETA ARAZOA DELA ADOSTEN DA. GARBIKETA ATZERAPENEZ, ETA LEKU GUTXI BATZUETATIK IGAROTZEAZ KEXATZEN DIRA. UDALAK GATZA BILTEGIRATUTA IZAN BEHAR LUKEELA AIPATZEN DA.</b></li> </ul>	<p><b>3.1.1. Udalerriko egungo errepide sarea</b></p> <p><b>3.1.1.1. Zerrenda eta deskribapen laburra</b></p> <p>Errepidea: GI- 3481</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Asteasun sortzen da G1-2631 errepidetik, Larraul herrira joateko</li> <li>▪ Luzera Larraul barnean: 1,7 Km</li> </ul> <p>Errepide hau Larraulen hiltzen da.</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #92d050;"> <th></th> <th style="text-align: center;">Hiriko bideak (km)</th> <th style="text-align: center;">Hiri arteko bideak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Zoladura zurrun, asfaltozko aglomeratu edo gainazaleko tratamendua duten bideak</td> <td style="text-align: center;">8,5</td> <td style="text-align: center;">-</td> </tr> <tr> <td>Lur natural gogor edo egonkorra, macadam, etab. duten bideak</td> <td style="text-align: center;">19,6</td> <td style="text-align: center;">-</td> </tr> <tr> <td>Guztira</td> <td style="text-align: center;">28,1</td> <td style="text-align: center;">-</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: 1999an udalkideek egindako balorazioa</p> <p><b>3.1.1.2. Errepide sarearen dentsitatea (km/Km<sup>2</sup>)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Errepide sarearen luzera totala: 1,7 Km</li> <li>▪ Udalerriaren azalera: : 5,7 Km<sup>2</sup></li> <li>▪ Datu hauek medio, Larraulgo errepide sarearen dentsitatea 0,3 Km/Km<sup>2</sup> da.</li> </ul> <p>Tolosako dentsitatea 0,8 km/ km<sup>2</sup> da, beraz, ikusten dugu, Larraulgo errepide sarea nahiko urria dela herri handiagoeekin konparatuz. Herriaren tamainaz gain, ziurraski eragina du ere errepidea Larraulen bukatzeak.</p> <p><b>3.1.2. Errepide berriak egin edo egungoak hobetzeko proiektu/aurreikuspenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ez dago herri bideei buruzko ordenantzarik. AASSetan adierazten diren neurriak bakarrik dira aplikagarriak.</li> </ul>		Hiriko bideak (km)	Hiri arteko bideak	Zoladura zurrun, asfaltozko aglomeratu edo gainazaleko tratamendua duten bideak	8,5	-	Lur natural gogor edo egonkorra, macadam, etab. duten bideak	19,6	-	Guztira	28,1	-
	Hiriko bideak (km)	Hiri arteko bideak											
Zoladura zurrun, asfaltozko aglomeratu edo gainazaleko tratamendua duten bideak	8,5	-											
Lur natural gogor edo egonkorra, macadam, etab. duten bideak	19,6	-											
Guztira	28,1	-											
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuen ustez, errepidean badira bi kurba nahiko itxi, eta ondo etorriko litzateke hauek zabaltzea.</li> <li>▪ Baten batek dio bihurtune batzuetan babesak jarri beharko liratekeela.</li> <li>▪ <b>ARAZO MODUAN IKUSTEN DA, HERRIRA DOAN</b></li> </ul>													


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																																										
<b>3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</b>																																											
<p>ERREPIDEKO ZENBAIT KURBEN EGOERA KASKARRA. OROKORREAN ERREPIDEA ESTUA DA ETA ARRISKUKO EGOERA ASKO SORTZEN DIRA. ETORKIZUNERA BEGIRA ERE GERO ETA AUTO GEHIAGO IBILIKO DIRELA USTE DA ETA ARAZOA AREAGOTU EGINGO DELA USTE DUTE.</p>	Bide azpiegituretan udalaren gastuak																																										
	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>Azpiegitura gastuak</th> <th>Azpiegitura eta urbanizazio gastuak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td><b>2002</b></td> <td>1.261,35 €</td> <td>60.294,19 €</td> </tr> <tr> <td><b>2003</b></td> <td>1.897,32 €</td> <td>-</td> </tr> <tr> <td><b>2004</b></td> <td>65,33 €</td> <td>-</td> </tr> <tr> <td><b>2005*</b></td> <td>2.000,00 €</td> <td>-</td> </tr> </tbody> </table>		Azpiegitura gastuak	Azpiegitura eta urbanizazio gastuak	<b>2002</b>	1.261,35 €	60.294,19 €	<b>2003</b>	1.897,32 €	-	<b>2004</b>	65,33 €	-	<b>2005*</b>	2.000,00 €	-																											
		Azpiegitura gastuak	Azpiegitura eta urbanizazio gastuak																																								
	<b>2002</b>	1.261,35 €	60.294,19 €																																								
	<b>2003</b>	1.897,32 €	-																																								
<b>2004</b>	65,33 €	-																																									
<b>2005*</b>	2.000,00 €	-																																									
Iturria: Udala																																											
*Aurrekontuaren arabera																																											
<ul style="list-style-type: none"> <li>Errepideetako punturik arriskutsuena plazarako sarbidea da gehienen ustez eta, gainera, bertan haurrak ibiltzen dira.</li> </ul>	<p><b>3.1.3. <u>Puntu beltzak, gune arriskutsuak</u></b></p> <p>Ez dago daturik.</p>																																										
<b>3.2 Mugikortasunaren ezaugarriak</b>																																											
<ul style="list-style-type: none"> <li>Guztiak datoz bat autoaren beharra azaltzeko orduan. Autoaren alternatibarik ez dago, baina hain daude ohituak autoa erabiltzen, autobusa balego ere, erabiliko ez luketela uste dutela gehienek. Izan ere, egon zen autobus zerbitzua, eta erabiltzen ez zelako kendu zuten.</li> <li>Garraio publikoa eskolakoentzat soilik dago Asteasura joateko, gainerakoan ez dago.</li> <li>Lanera kanpora joateko garraio publikorik ez dago, Asteasutik bai, aldiz, eta laster kanpotik herrira bizitzera etorriko direnekin agian behar hau handitu daiteke.</li> <li>Errepidea Larraulen bukatzen denez, beste lekuetara doan jenderik ez du zeharkatzen herria, eta horregatik nahiko bide lasaia dela esaten da.</li> <li>Plaza inguruan jendea azkarregi ibiltzen dela diote askok, eta abiadura gutxitzeko seinaleak jartzea nahikoa ez dela uste dute batzuk.</li> <li>Autorik ez dutenen artean, batzuk bono-taxia erabiltzen dute, eta gustura daude zerbitzuarekin.</li> <li>Larrauldik Asteasurako oinezko bidea konpondurik dagoen arren, batzuk errepidea erabiltzen dute.</li> </ul>	<p><b>3.2.1. <u>Ibilgailuak</u></b></p> <p><b>3.2.1.1. Udalerriko ibilgailu kopuru totala</b></p> <table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="7" style="background-color: #006633; color: white;">Ibilgailu kopurua</th> </tr> <tr> <th></th> <th>2000</th> <th>2001</th> <th>2002</th> <th>2003</th> <th>2004</th> <th>2005</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td><b>Turismoak</b></td> <td>78</td> <td>77</td> <td>78</td> <td>79</td> <td>84</td> <td>87</td> </tr> <tr> <td><b>Kamioiak, autobusak, traktoreak, atoiak</b></td> <td>19</td> <td>23</td> <td>28</td> <td>29</td> <td>29</td> <td>30</td> </tr> <tr> <td><b>Motorrak</b></td> <td>19</td> <td>11</td> <td>11</td> <td>10</td> <td>10</td> <td>12</td> </tr> <tr> <td><b>Guztira</b></td> <td>107</td> <td>111</td> <td>117</td> <td>118</td> <td>123</td> <td>129</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Udala</p> <p>Azken 5 urtetako turismo, kamioi, autobus, traktore eta atoiaren kopuruak gora egin du. Motorren kopuruan berriz, beheranzko joera du. 2000. urtean, turismoak ibilgailuen %73a ziren, eta 2005ean %67ra jaitsi dira. Hala ere, kontuan izan behar da datuok matrikulazioari buruzkoak direla, eta ez dutela derrigorrez esan nahi herrian ibilgailu guzti horiek daudenik.</p>	Ibilgailu kopurua								2000	2001	2002	2003	2004	2005	<b>Turismoak</b>	78	77	78	79	84	87	<b>Kamioiak, autobusak, traktoreak, atoiak</b>	19	23	28	29	29	30	<b>Motorrak</b>	19	11	11	10	10	12	<b>Guztira</b>	107	111	117	118	123	129
	Ibilgailu kopurua																																										
		2000	2001	2002	2003	2004	2005																																				
	<b>Turismoak</b>	78	77	78	79	84	87																																				
	<b>Kamioiak, autobusak, traktoreak, atoiak</b>	19	23	28	29	29	30																																				
	<b>Motorrak</b>	19	11	11	10	10	12																																				
	<b>Guztira</b>	107	111	117	118	123	129																																				

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ EZ DAGO ADOSTASUNIK GARRAIO PUBLIKOAREN BEHARRAREN INGURUAN.</li> <li>▪ AUTOBUSARI AURREZ TELEFONOZ DEITZEKO SISTEMA HORI EZ ZAIE OPERATIBOA IRUDITZEN ETA GAINERA PERTSONA BAKARRA GARRAIATZEKO AUTOBUS HANDI BAT IGOTZEA ERE EZ ZAIE LOGIKOA IRUDITZEN.</li> <li>▪ OINEZKOEN BIDEAK GARBI EGON ARREN, ERREPIDEA ERABILTZEN DA, BAINA EZ DA ARAZO MODUAN IKUSTEN. OINEZKOEN BIDEA ILUNAGOA DELA, BASOTIK DOALA, ALDAPA HANDIAGOA DUELA, ERREKA BAT GURUTZATU BEHAR DELA... ETA HORREGATIK ASKOTAN EZ DELA ERABILTZEN ARGUDIATZEN DU ZENBAITEK.</li> <li>▪ ARAZO LARRITZAT IKUSTEN DA JENDEAK PLAZA INGURUAN OSO AZKAR GIDATZEA.</li> </ul>	<p><b>3.2.1.2. Ibilgailuak familiako edo ibilgailuak 1000 biztanleko</b></p> <p>Ondoko grafikoan ikusten den bezala, Larraulen familiako eta mila biztanleko dagoen turismo kopurua, Tolosaldeako eta EAeko batezbestekoak baino altuagoa da, baina Gipuzkoakoa baino txikiagoa. Larraul eta Gipuzkoa familiako bi kotxe izatetik gertu daude, eta Tolosaldeako eta EAeko familiek berriz kotxe bat dute. Kontuan izan behar da Larraulgo familien tamaina, batez beste, handiagoa dela Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAEn baino. Horregatik, fidagarriagoa da mila biztanleko turismo kopuruaren datua konparaketak egiteko.</p>


## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA



- Aparkalekuaren inguruan iritzi desberdinak daude. Batzuen iritzi ez dago ondo plazan aparkatzea, eta beste leku bat beharko litzakete. Beste batzuk ez dute arazo hau ikusten.
- Aparkatzeko arazoa batez ere festetan eta ekitaldi berezietan sortzen da, baina herritarren kopurua handitzean aparkalekua egitea beharrezkotzat jotzen dute batzuk.
- Batzuk diote asteburutan jendea etortzen denez, aparkatzeko arazoa sortzen dela.
- ARAZO LARRITZAT IKUSTEN DA IZANGO DIREN APARKATZEKO ARAZOAK.
- APARKATZEKO ARAZOAK HEMENDIK AURRERA GEHIAGO IZANGO DIRELA USTE DUTE, ETXE BERRIAK BETETZEN HASTEN DIRENEAN. APARKALEKU BERRIAK EGITEA BAINO DAGOENA ANTOLATU BEHAR DELA ESATEN DA, IZAN ERE FRONTOI ONDOAN ETA PARKE ONDOAN DAUDEN APARKALEKUAK EZ OMEN DIRA ERABILTZEN, PLAZATIK 20 METROTARA EGONDA. JENDEA ERABAT OHITUA DAGO PLAZAN APARKATZERA. GEHIENEN USTEZ PLAZA POLITAGOA EGONGO LITZATEKE AUTORIK GABE ETA UMEENTZAKO

3.2.2. Aparkalekuak

Eustaten datuen arabera, Larraulgo aparkaleku guztiak publikoak dira. Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn, aparkaleku pribatuen batezbesteko proportzioa heren bat edo gehiagokoa da.




## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

ERE EGOKIAGOA IZAN LITZATEKE, BAINA ONARTZEN DUTE APARKATZEKO LEKUA BEHAR DELA ETA PLAZAN DEBEKATUZ GERO HERRIAN LEKUA FALTAKO LITZATEKEELA.

Turismoak aparkalekuko (2000)



Iturria: Eustat

Eustaten arabera, Larraulen aparkaleku bakoitzeko ia bi turismo dauden bitartean, Gipuzkoan aparkaleku bakoitzeko 10 turismo daude. EAEn aparkalekuko 7 turismo daude eta Tolosaldean berriz 3 kotxetatik gora. Beraz, autoa aparkatzeko arazoak oso urriak dira Larraulen, besteekin konparatuz.

- Garraio publikoa eskolakoentzat soilik dago Asteasura joateko, gainerakoan ez dago. Autoaren alternatibarik ez dago, baina hain daude ohituak autoa erabiltzen, autobusa balego ere, erabiliko ez luketela uste dutela gehienek. Izan ere, egon zen autobus zerbitzua, eta erabiltzen ez zelako kendu zuten.
- EZ DAGO ADOSTASUNIK GARRAIO PUBLIKOAREN BEHARRAREN INGURUAN.
- AUTOBUSA AURREZ TELEFONOZ DEITUTA LORTZEKO SISTEMA HORI EZ ZAIE OPERATIBOA IRUDITZEN ETA GAINERA PERTSONA BAT GARRAIATZEKO AUTOBUS HANDI BAT IGOTZEA ERE EZ ZAIE LOGIKOA IRUDITZEN.

3.2.3. Garraio publikoa3.2.3.1. Zerbitzuak

- Udalak hitzarmen bat du sinatua Tolosaldea Bus eta TSST autobus enpresekin.
  - Tolosaldea Bus autobusak: Larraul-Asteasu; Astelehenetik ostiralera lanegunetan: 11:00- 11:05, 12:45-12:50. Aurrez deituta eskatu egin behar da zerbitzua, bestela autobusa ez da igotzen.

Tolosaldea Bus konpainiaren erabiltzaileak (1996-2000)

Urtea	1996	1997	1998	1999	2000
Bidaiariak	281.499	270.011	231.371	195.952	195.190

Iturria: Gipuzkoako bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketa (2001)

Ikus daitekeenez 1996 eta 2000 urteen artean

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

**3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

konpainia honek eskaintako zerbitzuetako erabiltzaile kopuruak %34 egin du behera.

**3.2.3.2. Gabeziak**

- Herrian ez dago taxirik. Gertuenekoa Villabona-Amasakoa da.
- Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketan adierazten denez, Tolosaldeako ezaugarriek autobus bidezko garraio zerbitzu erregularraren errentagarritasun ekonomikoa nabarmenki oztopatzen dute.

**3.2.3.3. Aurreikuspenak/proiektuak**

- Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketan, Tolosaldeako eskualderako 4 lineadun autobus zerbitzu erregularra proposatzen da, zerbitzu hau tren zerbitzuarekin koordinatuz. Zerbitzu erregularrak ezartzea zaila den eremuetarako (aztergai ditugun landa eremuko herri txikiak kasu) eskariaren araberako zerbitzua eskaintzea proposatzen da, berriz.
- Eskariaren araberako zerbitzua eskaintzeko aukeretako bat egungo taxiekin zerbitzuon eskaintza hitzartzea litzateke. Honela, Tolosaldearako proposatzen den eskariaren araberako zerbitzua ondokoa litzateke.

**Eskariaren araberako zerbitzua Tolosaldean (2001)**

Zerbitzua jasoko luketen udalerriak	Zerbitzuaren jatorria	Egungo taxi lizentziak	Zerbitzuaren destinoa
Zizurkil, <b>Larraul</b>	Villabona-Amasa-Zizurkil	5	Villabona-Amasa
Alkiza, Hernalde	Tolosa	19	Anoeta-Tolosa
Gaztelu, Leaburu, Belauntza, Orexa, Albiztur	Tolosa-Ibarra	20	Tolosa
Iturria: Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketa (2001)			

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</b>	
<b>3.3 Irisgarritasuna</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elurra izan dugun egunetan pala pasatu da bideak garbi egoteko.</li> <li>▪ ELURTEAK DIRELA MEDIO EGITEN DEN BIDE GARBIKETA ARAZOA DELA ADOSTEN DA. GARBIKETA ATZERAPENEZ, ETA LEKU GUTXI BATZUETATIK IGAROTZEAZ KEXATZEN DIRA. UDALAK GATZA BILTEGIRATUTA IZAN BEHAR LUKEELA AIPATZEN DA.</li> </ul>	<p><b>3.3.1. <u>Arazoak (elurra, luiziak, zuhaitz eroriak...)</u></b></p> <p>Elurra dagoenean herritar batek garbitzen du errepidea bere traktoreari pala jarrita.</p>
	<p><b>3.3.2. <u>Aurreikuspenak</u></b></p> <p>Ez dago daturik.</p>
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Gehienak pozik daude errepideen egoerarekin, baina herria hazten doan neurrian ondo moldatuko ote diren kezka azaltzen dute. Errepide nagusian kurba pare bat zabaltzea, bihurgune batzuetan babesak ipintzea, eta plazako sarreran ibilgailuen abiadura jaisteko moduak jartzea dira elkarrizketatuen eskaera nagusiak. Ibilgailuan abiadura handia arazo larri moduan sailkatua izan da Herri Batzarrean, eta errepideko kurbak zabaltzearen inguruan, konponbide zaila dagoela ikusten da.</p> <p>Guztiak datoz bat autoaren beharra azaltzeko orduan. Ibilgailu kopuruari dagokionez, familiako ia bi kotxe izan arren, Gipuzkoako batezbestekoarekin alderatuz auto gutxiago daude bai familiako, bai eta 1000 biztanleko ere. Garraio publikorik ez dagoenez, autoarentzat alternatibarik ez dago, baina jarriko balute ere, askok uste du ez litzatekeela erabiliko, autoa hartzeko ohitura handiegia delako.</p> <p>Garraio publikoaren datuei dagokionez, Tolosaldea Bus konpainiaren erabiltzaileak 1996tik 2000. urtera %34an jaitsi ziren. Garraio publikoa bultzatzeko proiektuak daude, bai autobusei, baita taxiari dagokienez. Herri Batzarrean ez da argi ikusten gai hau, baina ados daude zerbitzua telefonoz eskatzea operatiboa ez dela esaterako orduan.</p> <p>Aparkalekuen inguruan, arazoak ekitaldi bereziak daudenean sortzen dira soilik, elkarrizketatuen esanetan. Hala ere, askok ez dute egoki ikusten herriko plaza aparkaleku moduan erabiltzea. Gai honen inguruan ere, herria hazten doan neurrian arazoak sortuko ez ote diren kezka dago. Herri Batzarrean, aparkalekuen gaia arazo garrantzitsua dela adostu da.</p> <p>Elurteen garaian, elkarrizketatuek errepideak garbitu direla, eta orokorrean nahiko gustura daudela adierazi duten bitartean, Herri Batzarrean berriz garbiketa desegokia egiten dela aipatu da.</p>	


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																		
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>																			
<b>4.1 Ura</b>																			
	<p><b>4.1.1. <u>Ur baliabideak</u></b></p> <p>Larraul Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren baitan dago, gune autonomo gisa.</p>																		
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gehienen ustez, uraren hornidura eta kalitatea onak dira, gehienbat bigarren depositua egin zenetik.</li> <li>▪ Baten batek dio etxebizitza berriak eraikitzean etor daitezkeela arazoak, eta nekazaritzan ere ur asko erabiltzen dela.</li> <li>▪ Batzuk diote hornidurako hodiak zaharkitzen ari direla, eta hauek berritzeko beharra egon daitezkeela.</li> <li>▪ Zenbaitek, igerilekua ondo egon daitezkeela uste du, baina, ur eskasia dela eta ez da oso bideragarria ikusten.</li> <li>▪ URAREN HODITERIA ZAHARKITUA EGOTEA ARAZO LARRI GISA ADOSTU DA.</li> <li>▪ BASERRIEK UR ASKO ERABILTzea ETA ETXE BERRIAK ERAIKITZEAN UR HORNIDURAN SORTUKO DIREN ARAZOAK EZ DIRA LARRITZAT BALORATU.</li> </ul>	<p><b>4.1.2. <u>Ur hornidura</u></b></p> <p><b>4.1.2.1. Ura hartu eta tratatzeko instalazioak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ura Murgileko gainean dagoen deposituan biltzen da eta handik banatzen da etxeetara.</li> <li>▪ Uraren fibrozementuzko hoditeria duela 30 urte inguru jarri zen. Hala eta guztiz zenbait adar orduz geroztik berriak izan dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Sorarrain baserrietara: duela 9 urte berriak, PVCzko hoditeria erabiliz.</li> <li>○ Hilerriraino: duela 3 urte berriak, PVCzko hoditeria erabiliz.</li> <li>○ Beste adarren bat ere egon daitezke berriak, zenbaitetan matxurak direla eta zati batzuk aldatu baitira, beti ere, PVCzko hoditeria ipiniz.</li> </ul> </li> <li>▪ Sarea zaharkitua dago, duela 30 urte inguru jarritakoa da eta zenbait arazo daude. Denbora gutxi barru konponketak egin beharko dira, eta kudeaketa guztia Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren gain uztea ere aukera bezala ikusten da.</li> <li>▪ Ur sarea etxe guztietara iristen da.</li> </ul> <p>Azpiegitura eta inbertsioei dagokienez:</p> <table border="1" data-bbox="794 1547 1442 1906" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr style="background-color: #92d050;"> <th colspan="3" style="text-align: center;">Ur sarean udalaren gastua</th> </tr> <tr> <th style="width: 15%;"></th> <th style="width: 45%; text-align: center;">Azpiegitura gastua</th> <th style="width: 40%; text-align: center;">Inbertsioak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center;"><b>2002</b></td> <td style="text-align: center;">2.396,26 €</td> <td style="text-align: center;">-</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;"><b>2003</b></td> <td style="text-align: center;">1.965,12 €</td> <td style="text-align: center;">-</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;"><b>2004</b></td> <td style="text-align: center;">1.382,56 €</td> <td style="text-align: center;">7.625,77 €</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;"><b>2005*</b></td> <td style="text-align: center;">2.000,00 €</td> <td style="text-align: center;">-</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Udala</p> <p>*Aurrekontuaren arabera</p>	Ur sarean udalaren gastua				Azpiegitura gastua	Inbertsioak	<b>2002</b>	2.396,26 €	-	<b>2003</b>	1.965,12 €	-	<b>2004</b>	1.382,56 €	7.625,77 €	<b>2005*</b>	2.000,00 €	-
Ur sarean udalaren gastua																			
	Azpiegitura gastua	Inbertsioak																	
<b>2002</b>	2.396,26 €	-																	
<b>2003</b>	1.965,12 €	-																	
<b>2004</b>	1.382,56 €	7.625,77 €																	
<b>2005*</b>	2.000,00 €	-																	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																								
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>																									
	<p><b>4.1.2.2. Uren kalitatea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Osasun Publikoko Tolosaldea-Goierri Eskualdeko Jardueri buruzko 2003 eta 2004ko txostenetan, Larraulgo edateko ura edateko APROPOSA dela esaten da, baina kalitatea TXARRA dela agertzen da. Hau da, egindako analisien %10a baino gehiagotan kalifikatu da kalitate txarrekoa.</li> <li>▪ Orain arte 2005ean egin diren analisien (5) emaitzen arabera, edateko uraren kalitatea ONA da.</li> </ul>																								
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gutxi batzuk diote ura aurrezteko kontzientzia dutela.</li> </ul>	<p><b>4.1.3. <u>Ur kontsumoa</u></b></p> <p><b>4.1.3.1. Ur kontsumoaren eboluzioa urtez-urte</b></p> <div data-bbox="794 880 1422 1534" style="border: 1px solid black; padding: 10px;"> <p style="text-align: center;"><b>Ur Kontsortzioak fakturatutakoa eta udaleko ur kontadoreek neurtutakoa (2000-2004)</b></p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <caption>Data for Ur Kontsortzioak fakturatutakoa eta udaleko ur kontadoreek neurtutakoa (2000-2004)</caption> <thead> <tr> <th>Urte</th> <th>Ur Kontsortziak fakturatutakoa (m3/urteko)</th> <th>Udaleko ur kontadoreek neurtutakoa (m3/urteko)</th> <th>Diferentzia (m3/urteko)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>2000</td> <td>44000</td> <td>21000</td> <td>23000</td> </tr> <tr> <td>2001</td> <td>27000</td> <td>23000</td> <td>4000</td> </tr> <tr> <td>2002</td> <td>27000</td> <td>16000</td> <td>11000</td> </tr> <tr> <td>2003</td> <td>34000</td> <td>18000</td> <td>16000</td> </tr> <tr> <td>2004</td> <td>39000</td> <td>19000</td> <td>20000</td> </tr> </tbody> </table> <p style="text-align: center;">Iturria: Ur Kontsortzioa eta Udala</p> </div> <p>2000-2004 epean, Ur Kontsortzioak udalari fakturatutako ur kantitaterik altuena 2000. urtean izan zen. 2001en jaitsi zen, eta orduz geroztik gorako joera du.</p>	Urte	Ur Kontsortziak fakturatutakoa (m3/urteko)	Udaleko ur kontadoreek neurtutakoa (m3/urteko)	Diferentzia (m3/urteko)	2000	44000	21000	23000	2001	27000	23000	4000	2002	27000	16000	11000	2003	34000	18000	16000	2004	39000	19000	20000
Urte	Ur Kontsortziak fakturatutakoa (m3/urteko)	Udaleko ur kontadoreek neurtutakoa (m3/urteko)	Diferentzia (m3/urteko)																						
2000	44000	21000	23000																						
2001	27000	23000	4000																						
2002	27000	16000	11000																						
2003	34000	18000	16000																						
2004	39000	19000	20000																						

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 4. INGURUMEN BEKTOREAK




Biztanle bakoitzak egiten duen ur kontsumoari begiratuz, lehen bi urteetan izan ezik, erdiguneko biztanleen ur kontsumoa, barreiatuko biztanleena baino baxuagoa da.

Kontsumoko desberdintasun hauetan erdiguneko hoditeria egoera hobean egoteak zerikusia izango du, dudarik gabe.

## 4.1.3.2. Ur kontsumoa sektoreka

Ez dago daturik

## 4.1.3.3. Ur galerak



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>	
	<p>Ur Kontsorzioak udalerriari fakturatutako datuak udalerriko kontadoreetan jasotzen den ur kontsumoarekin konparatuz, kontadoreetatik igaro gabe erabiltzen den ur kantitatea ezagutu daiteke. Kontadoreetatik igarotzen ez den ur hau hodi sisteman galdutakoa izan daiteke, edo kaleko ureztatze iturrietatik obretan eta garbiketetan erabilitako ura izan daiteke. Edozein modutan, 2001etik hona kontadoreetatik igaro gabeko uraren kantitatea modu oso nabarmenean ari da hazten.</p> <p><b>4.1.3.4. Ura aurrezteko udal neurriak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ura aurrezteko udal neurririk ez dago martxan.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Saneamendurako hobi kolektiboa ondo baloratua dago. Herrigunetik kanpo "boca de riego" direlakoak egon beharko lukete, batzuen ustez.</li> <li>▪ HERRIGUNETIK KANPO UREZTATZE AHORIK EZ EGOTEA, ARAZOA DELA ADOSTU ARREN, EZ DA LARRITZAT JOTZEN.</li> </ul>	<p><b>4.1.4. <u>Saneamendua</u></b></p> <p><b>4.1.4.1. Saneamendu sistema</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Beobide baserrien inguruan dago araztegia.</li> <li>▪ Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kudeatzen du.</li> <li>▪ Herriguneko ur zikinak biltzen dira, sakabanatuta dauden gainerako etxe eta baserrietakoak ez.</li> <li>▪ Kolektorea herrigunetik Gorotzen baserrira igotzen da, beraz Gorotzen, Elutsa eta Elizburuko ur zikinak ere jasoko ditu.</li> </ul>
	<p><b>4.1.5. <u>Hornidura, saneamendua, eta uraren erabileraren udal kontrola</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Uraren Goi Sarea Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kudeatzen du.</li> <li>▪ Gainerakoa Udalak berak kudeatzen du</li> <li>▪ Uraren hornitzeaz, hau da, deposituaz, eta saneamenduko araztegiar arduratzen da Gipuzkoako Ur Kontsorzioa. Ura depositutik ateratzen denetik, araztegiara iristen deneraino, Udalak kudeatzen du. Herritarren ordainketak ere Udalaren esku daude.</li> </ul>
<b>4.2 Energia</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Energia hornidurari dagokionez, ez da kexarik.</li> <li>▪ Gasa erabiltzen dute herriaren erdigunean bizi direnek, eta gainerakoek berriz ez.</li> <li>▪ Batzuk diote etxebizitza berrietan farola asko ipini direnez, kutsadura luminikoa sortuko dela.</li> </ul>	<p><b>4.2.1. <u>Energia hornidura iturriak: elektrizitatea, gasa, energia berriztagarriak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gasa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Gas propanoaren 2 depositu daude herrian:</li> </ul> </li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																								
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>																									
	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bata udaletxearen atzean dago, herrigunearen gehiengoa hornitzen du.</li> <li>▪ Bestea, frontoiaren atzeko aldean kokatzen da, inguruan dauden etxe berriak hornitzen ditu.             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ REPSOL enpresak kudeatzen ditu bi deposituak.</li> </ul> </li> <li>▪ Argi-indarra: etxe guztietara iristen da, Iberdrolak hornituta.</li> </ul>																								
	<p><b>4.2.2. Udalerriko energia kontsumoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elektrizitatea</li> </ul> <div data-bbox="799 891 1426 1514" style="border: 1px solid black; padding: 10px;"> <p style="text-align: center;"><b>Larraulgo elektrizitate kontsumoaren bilakaera (2000-2004)</b></p> <table border="1" style="margin: 10px auto; border-collapse: collapse;"> <caption>Larraulgo elektrizitate kontsumoaren bilakaera (2000-2004)</caption> <thead> <tr> <th>Urtea</th> <th>Etxebizitzak (KWh)</th> <th>Zerbitzuak (KWh)</th> <th>Industria (KWh)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>2000</td> <td>190.000</td> <td>80.000</td> <td>40.000</td> </tr> <tr> <td>2001</td> <td>190.000</td> <td>90.000</td> <td>20.000</td> </tr> <tr> <td>2002</td> <td>200.000</td> <td>100.000</td> <td>10.000</td> </tr> <tr> <td>2003</td> <td>220.000</td> <td>120.000</td> <td>10.000</td> </tr> <tr> <td>2004</td> <td>230.000</td> <td>150.000</td> <td>10.000</td> </tr> </tbody> </table> <p style="text-align: center;">Iturria: Iberdrola</p> </div> <p>Iberdrolak emandako datuen arabera, etxebizitzak dira elektrizitate gehien kontsumitzen dutenak, eta zerbitzuekin batera goranzko joera dute. Hala ere, zerbitzuen kontsumoaren gorakada nabarmenagoa izan da. Industria sektoreko elektrizitate kontsumoa beherantz doa urtez urte, 2003 eta 2004 urteen artean goranzko joera txikia agertu badu ere. Energia kontsumo totalak gora egin du azken urteotan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gasa</li> </ul> <p>Larraulgo Udaletxeko gas kontsumoaren bilakaera jarraian adierazitakoa izan da azken urteotan</p>	Urtea	Etxebizitzak (KWh)	Zerbitzuak (KWh)	Industria (KWh)	2000	190.000	80.000	40.000	2001	190.000	90.000	20.000	2002	200.000	100.000	10.000	2003	220.000	120.000	10.000	2004	230.000	150.000	10.000
Urtea	Etxebizitzak (KWh)	Zerbitzuak (KWh)	Industria (KWh)																						
2000	190.000	80.000	40.000																						
2001	190.000	90.000	20.000																						
2002	200.000	100.000	10.000																						
2003	220.000	120.000	10.000																						
2004	230.000	150.000	10.000																						



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>																	
	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr> <th colspan="4" style="background-color: #4F81BD; color: white;">Gas kontsumoa (Kg) (2002-2004)</th> </tr> <tr> <th style="width: 15%;"></th> <th style="width: 20%;">2002</th> <th style="width: 20%;">2003</th> <th style="width: 20%;">2004</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="background-color: #4F81BD; color: white;"><b>GUZTIRA</b></td> <td style="text-align: center;">203</td> <td style="text-align: center;">262</td> <td style="text-align: center;">275</td> </tr> <tr> <td colspan="4">Iturria: Iberdrola</td> </tr> </tbody> </table> <p>Fakturak hilabeteka desglosatuta ageri dira, kontagailuak daude antza.</p> <p>Ikus daitekeenez 2002 eta 2004 urteen artean Udaletxeko gas kontsumoak gora egin du %35ean.</p>	Gas kontsumoa (Kg) (2002-2004)					2002	2003	2004	<b>GUZTIRA</b>	203	262	275	Iturria: Iberdrola			
Gas kontsumoa (Kg) (2002-2004)																	
	2002	2003	2004														
<b>GUZTIRA</b>	203	262	275														
Iturria: Iberdrola																	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Antzaz, energia berriztagarriak erabiltzen duenik bada herrian.</li> </ul>	<p><b>4.2.3. <u>Energia berriztagarriak</u></b></p> <p>Behin-betiko onespina duen EAEko Energia Eolikoa Antolatze Lurralde Arloko Planaren (LAP) arabera, baldintza teknikoak eta ingurumenekoak kontutan izanik, parke eolikoak ipintzeko kokaleku gisa baztertzeko da Ernio.</p> <p>Aipaturiko LAP honen arabera, parke eolikoa, ahal bada, ez da Gatzumen kokatuko.</p> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr> <th style="width: 15%;"></th> <th style="width: 15%;">Luzera Km</th> <th style="width: 15%;">Haizea errotak</th> <th style="width: 15%;">Potentzia MW</th> <th style="width: 15%;">Produktio garbia GWh/urte</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Gatzume</td> <td style="text-align: center;">1,7</td> <td style="text-align: center;">17</td> <td style="text-align: center;">11,2</td> <td style="text-align: center;">28,0</td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: EAEko Energia Eolikoa Antolatze Lurralde Arloko Plana</p>		Luzera Km	Haizea errotak	Potentzia MW	Produktio garbia GWh/urte	Gatzume	1,7	17	11,2	28,0						
	Luzera Km	Haizea errotak	Potentzia MW	Produktio garbia GWh/urte													
Gatzume	1,7	17	11,2	28,0													
	<p><b>4.2.4. <u>Energia aurrezteko udal neurriak</u></b></p> <p>Energia aurrezteko udal neurriarik ez dago martxan</p>																
<b>4.3 Hondakinak</b>																	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zaborren bilketaren maiztasunaren inguruan iritzi desberdinak daude. Batzuentzat nahikoa da asteen behineko bilketa, besteek aldiz maiztasun handiagoa behar dela diote.</li> <li>▪ Zakarrontziak herrian izatea ondo ikusten da, baina agian baserrian bizi direnek ez dutela erabiliko uste da.</li> <li>▪ Etxebizitza berriak egitean, edukiontzi gehiago beharko direla uste dute gehienek.</li> <li>▪ Lurpeko edukiontzien ideia gustatzen zaie batzuei.</li> </ul>	<p><b>4.3.1. <u>Hondakinen kudeaketarako organo eta enpresa eskudunak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zabor organikoaren bilketa udalak egiten du, GSM enpresa kontratatuz.</li> <li>▪ Zabor birziklagarriena berriz, Tolosaldeako Mankomunitatearen esku gelditzen da.</li> <li>▪ Birziklatzen ez diren hondakinen bilketa udaletxe bakoitzaren esku dago. Eskualdean 5 enpresa desberdin dabilta zabor hauek jasotzen, eta askotan zabor bilketa ez da herriaren eremuan soilik egiten. Adibide gisa Alkizako bilketa Berastegi eta Berrobi herrietako bilketaekin</li> </ul>																

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>																	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Badirudi mendi zokoren batean eta karobietan hondakinak aurki daitezkeela, batzuk komentatu dutenez.</li> </ul>	<p>batera egiten da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Badirudi etorkizun hurbilenean zabor mota guztien bilketa Tolosaldeko Mankomunitatearen eskutik izango dutela. Hasierako adostasun batera iritsi dira; ekarpenak biztanleko egingo dira eta horrek herri txikiei kudeaketa integratuan sartzeko aukera ematen die.</li> </ul>																
	<p><b>4.3.2. <u>Hondakinen sorkuntza</u></b></p> <p><b>4.3.2.1. Hondakinen sorkuntzaren eboluzioa</b></p> <div data-bbox="799 734 1426 1305" style="border: 1px solid black; padding: 10px; text-align: center;"> <p><b>Tolosaldeako Mankomunitatean sortutako hiri hondakinen bilakaera (1998-2004)</b></p> <table border="1" style="margin: auto;"> <thead> <tr> <th>Urtea</th> <th>Kg./bizt./eguneko</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1998</td><td>1,00</td></tr> <tr><td>1999</td><td>1,00</td></tr> <tr><td>2000</td><td>1,11</td></tr> <tr><td>2001</td><td>1,17</td></tr> <tr><td>2002</td><td>1,12</td></tr> <tr><td>2003</td><td>1,37</td></tr> <tr><td>2004</td><td>1,20</td></tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Tolosaldeako Mankomunitatea</p> </div> <p>Ikus daitekeenez, Larraulgoa soilik eta bereziki den daturik ez dugu, Tolosaldea guztikoak baizik. 1998tik 2003 bitarte, biztanle bakoitzak sortzen zuen eguneko hondakin kantitatea %37 handitu da. 2004. urtean hiri hondakinen sorreran beherazko joera ikus daiteke.</p> <p><b>4.3.2.2. Hondakinak murrizteko udalaren neurriak</b></p> <p>Ez dago daturik.</p>	Urtea	Kg./bizt./eguneko	1998	1,00	1999	1,00	2000	1,11	2001	1,17	2002	1,12	2003	1,37	2004	1,20
Urtea	Kg./bizt./eguneko																
1998	1,00																
1999	1,00																
2000	1,11																
2001	1,17																
2002	1,12																
2003	1,37																
2004	1,20																
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zakarrontziak herrian izatea ondo ikusten da, baina agian, baserrian bizi direnek, herrian kokaturik dauden zakarrontziak ez dituztela erabiliko uste da.</li> <li>▪ Tabernan sortzen den kartoi kantitateak zakarrontzia beteko lukeenez, kartoia erre egiten da.</li> </ul>	<p><b>4.3.3. <u>Hondakinen kudeaketa</u></b></p> <p><b>4.3.3.1. Kudeaketa azpiegiturak herri zein eskualde mailan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sasieta zabortegia: birziklatzen ez diren hondakinak isurtzen dira bertan. Zabortegi hau Beasaingo mendebaldean kokatzen da, Salbatore auzoan. 1991an jarri zen abian eta bertan 3</li> </ul>																


HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk diote baserrietan hildako abereak mendian uzteko ohitura izan dela, eta oraindik ere horrela egiten dela, nahiz eta hauek jasotzeko zerbitzua izan. Udan usain arazoak etor daitezke gorpu hauek direla medio</li> </ul>	<p>mankomunitateetako hiri-hondakinak isurtzen dira (Sasieta, Deba-Goiena eta Tolosaldeako Mankomunitateak), 185.000 biztanleri zerbitzua emanez.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Anoetako garbigunea: obra hondakinak, altzariak, plastikoak, kartoiak, lerro txuri (etxetresnak), gris (tresna elektronikoak) eta marroiko (tresna elektrikoak) hondakinak jasotzen dira bertan. Lerro txuri, gris eta marroiko hondakinak eta kartoia birziklatu egiten dira eta gainontzeko hondakinak Sasieta zabortegira (altzariak) eta Cespa GR hondakin geldoen zabortegira (plastikoak eta obra hondakinak) eramaten dira.</li> <li>▪ Ontzien Sailkapen Planta: eskualdean jasotzen diren plastikozko, metalezko eta brik motako ontziak Legazpiko Ontzien Sailkapen Plantan sailkatzen dira ondoren, hainbat birziklatzaileri bidaltzen zaizkiolarik euren lan-prozesuetan lehengaitzat erabil ditzaten. Planta honek ondorengo mankomunitateei ematen die zerbitzua: Sasieta, Deba Garaia, Deba Behea, Urola Erdia, Urola Kosta eta Tolosaldea (328.211 biztanle guztira).</li> <li>▪ Edukiontzia: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Beira: Edukiontzi 1 (Tolosaldean 252)</li> <li>○ Papera eta kartoia: Edukiontzi 1 (Tolosaldean 200)</li> <li>○ Ontziak: Edukiontzi 1 (Tolosaldean 190)</li> <li>○ Arropa: Edukiontzi 1 (Tolosaldean 39)</li> </ul> </li> <li>▪ Kamioiak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Beira bilketarako: kutxa irekidun kamioia, besoduna.</li> <li>○ Papera eta ontzien bilketarako: gainaldetik kargatzen den kamioia, zapaltzeko makina eta besoduna.</li> <li>○ Arropa, landare olioia eta hondakin arriskutsuen bilketarako: bi furgoneta</li> <li>○ Birziklatzen ez diren zaborrak atzealdetik kargatzen diren kamioiekin jasotzen dira.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>4.3.3.2. Hondakin kategoria bakoitzaren</b></p>

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 4. INGURUMEN BEKTOREAK

## bilketaren eboluzioa azken urteetan



Tolosaldeako hiri hondakinen bilakaeran ikusten denaren arabera, sortutako hondakinek gora egin dute %20 1998tik 2004ra. 1998an hondakinen 591 kg/biztanleko zabortegira botatzen zen, eta %9 birziklatzen zen. 2004an, aldiz, %80 zabortegira doa, eta %20 birziklatzen da. Epe horretan sortutako zaborrek jaitiera puntualak izan dituzten arren, birziklatutako kopuruak beti gora egin du.

**Larraulen abian jarritako gaikako bilketan jasotakoa (2004)**


Landare olioia	78 litro
Motoretako olioia	11 litro
Bateriak, pinturak, pilak...	113 unitate
Arropa	184 kilo
Iturria: Tolosaldeako Mankomunitatea	

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

## 4. INGURUMEN BEKTOREAK

- Orokorrean hondakinak sailkatzeko kontzientzia dago, nahiz eta guztiek ez dutela egiten uste den.



Larraulen, Tolosaldeako datuekin konparatuz, beira gehiago birziklatzen da, baina papera-kartoa eta ontzi arin gutxiago. Larraulen, beiraren birziklapenak 2003 arte gora egin zuen, gero jaisteko, eta papera-kartoa eta ontzi arinak gutxinaka hazten doaz.

#### 4.3.3.3. Nekazaritzari lotutako hondakin bilketa eta kudeaketarako ekintzak

Hilean behin baserritarrei deialdia egiten zaie silo bola plastikoak ohiko lekuetara ateratzeko.

#### 4.3.4. Informazio eta komunikazio kanpainak

Jarraian Tolosaldea mailan burutu izan diren kanpainak zerrendatzen dira, kanpainon nondik norakoak azalduz.

- Landare olio eta arriskutsuen bilketa zerbitzua: Kanpaina hau eskualde osoan burutu zen 2004ean. Triptiko bat banatu zen, bertan bilketen eguna, bildu beharreko hondakinak eta informazioa orokorra jasotzen zelarik.
- Garbigunea: Eskualde osoan eman zen kanpaina

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>4. INGURUMEN BEKTOREAK</b>	
	<p>hau 2003 urtean eta Garbigunearen funtzioak eta erabilera bultzatzea izan zuen helburu. Beronen bidez Garbigunea zer eta zertarako den azaldu zen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Merkataritza eta enpresetako kartoi bilketa: 2004ean burutu zen kanpaina eskualde osoan.</li> <li>▪ Zaborren inguruan kanpaina orokorra: Eskualde osoko kanpaina izan zen, 2003-2004 urteetan zehar burututakoa.</li> </ul> <p>Kanpaina hauek eskualde mallakoak izan dira, herri handienetan landu direlarik batik bat.</p>
	<p><b>4.3.5. <u>Kontrolik gabeko isurpen puntuen identifikazioa</u></b></p> <p>Ez dago daturik.</p>
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Uraren hornidura eta kalitateari buruz, hornidura sarea zaharkitua dago, eta hau konpondu beharra dagoela lehenasunezko zatik ikusi da Herri Batzarrean. Kontadoreetatik igaro gabe erabiltzen den ur kantitatearen igoerak iritzi honen alde egiten du. Gehienek kalitatea ona dela uste arren, datuen arabera, 2003 eta 2004an ura edangarria izan da, baina kalitate txarrekoa, eta 2005ean kalitate onekoa, aldiz.</p> <p>Gehienek ura aurrezteko kontzientzia dutela diote. Hala ere, udalerraren ur kontsumoa gorantz doa, gehienbat barreiatutako biztanleen ur kontsumoa handitu baita. Erdigunean, nahiz eta etxe berriak egin eta biztanleria bikoiztu, ur kontsumoa beherantz doa. Datu hauek interpretatzeko orduan, erdigunean egindako obretan hoditeria berritzearen ondorioz, ur galera gutxiago dagoela pentsa daiteke. Udalak ez du ura aurrezteko neurririk.</p> <p>Saneamendu sistema Ur Kontsurtzioaren eta Udalaren esku dago, eta elkarrizketatuek ez dute kezka berezirik azaltzen gai honen inguruan. Erdigunetik kanpo ureztatze ahoak beharrezkoak direla ikusi da Herri Batzarrean.</p> <p>Energia iturri desberdinei dagokienez, erdigunean gasa dago. Gasa eta elektrizitatearen horniduraren gainean ez da arazorik elkarrizketatuen ustez, eta biztanleria handitzearekin batera kontsumoa ere gorantz doa. Energiari dagokionez udalak ez du aurrezteko neurririk.</p> <p>Larraulen mota guztietako zaborra biltzeko zerbitzuak eskaintzen dira, enpresa desberdinen eskutik. Batzuk diote zabor bilketa maiztasun nahikoarekin egiten dela, eta beste batzuk maiztasuna gehitzea eskatzen dute. Geroz eta zabor gehiago sortzen da, eta geroz eta zabor gehiago birziklatzen da. Batzuen ustez, zakarrontzi gehiago beharko dira etxebizitzien kopurua handitu delako. Lurpeko edukiontzien ideia batzuk gustukoa dute.</p> <p>1998an birziklatzen zen kantitatearen bikoizta baino gehiago birziklatzen da gaur egun. 1998an sortzen zena baino %20 zabor gehiago sortzen da gaur egun, baina orduan baino gehiago birziklatzen da. Larraulen, batez ere beira birziklatzeko ohitura dago, eta ez hainbeste paper-kartoi eta ontziak birziklatzekoa. Tolosaldean, berriz, paper-kartoiak birziklatzen da batez ere. Tabernako kartoiak zakarrontzia beteko luketenez, erre egiten dira.</p>	

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

### 5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)

#### 5.1 Baso ustiapenak


- Pinudien hedapenaren inguruan ikuspegi desberdinak daude, batzuk pinudiak landatu direla diote, eta besteek hedatu ez direla diote.
- Batzuk landaketak egin ahal izateko lursail txikiegiak dituztela komentatzen dute.
- Orokorrean, baso lanak direla medio ez da soinuaren inguruko kezarrik.
- Gehienek diote basoak gero eta zikinago daudela, sasia gehitzen ari omen da jendeak basoak garbitzeko denborarik ez baitu.
- Sailak garbi mantentzeko ardiak jartzen dituztenak ere badira.
- PINU LANDAKETEN UGARITZEA EZ DA ARAZO MODUAN IKUSTEN.
- ARAZO IZAN ARREN EZ DA LARRITZAT JOTZEN, BASO LANDAKETAK EGIN AHAL IZATEKO LURSAIL TXIKIEGIAK IZATEA.
- SASIA NON HAZTEN DEN DA ARAZOA. HERRI INGURUKO SASIA ARAZOA DA, BAINA EZ MENDIKOA.

#### 5.1.1. Baso zoruaren azalera eta urteroko aprobetxamendua (m<sup>3</sup>)

Behin-behineko onespena duen EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (LAP), Lur Ez Urbanizagarrietako nekazaritza eta basogintza erabilerak arautzen ditu. Larraulgo lurren banaketa modu honetan burutzen da LAP honetan:

Azalera (m <sup>2</sup> )	
Basoa-Mendi Urria	230.798,6405
Basoa	2.944.360,0161
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak	40.348,0702
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	29.870,9086
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	2.399.232,1905

Iturria: Behin-behineko onespena duen EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana




## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA


## DATU OBJEKTIBOAK

### 5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)

Larraulgo azaleren banaketan belardiak eta baso azalera nagusitzen dira; sastrakadi, larre eta hiritarra eta jarduera intentsiboak dituzten azaleren gainera.



Ikusten den bezala, Larraulgo baso proportzioa, Gipuzkoakoa baino txikiagoa da.



Baso motei dagokionez Larraulen hostozabalen portzentaia Gipuzkoakoa baino bikoitza baino handiagoa da, eta koniferoen baso azalera berriz, ez da Gipuzkoaren erdira iristen.



## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

**5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)**

**Baso mozketak (1995tik 2005eko martxo arte)**

ZUHAITZ MOTA	m <sup>3</sup>	Ha.
Koniferoak	1.405,8	2,92
Hostozabalak	218,51	3,29
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.624,31</b>	<b>6,21</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia


Ikus daitekeenez baso mozketetan ateratako egur bolumenari dagokionean koniferoak dira nagusi; 1995 eta 2005ko martxo artean burututako baso mozketetan atera den egurraren %86,5 koniferoei dagokie, hostozabalek, egur bolumen totalaren %13,5 osatzen duten bitartean.

Moztutako baso azalerari dagokionean, berriz, azalera totalaren %53 hostozabalei dagokio eta %47 koniferoei. Hostozabal eta koniferoen hektarea bakoitzeko lortzen diren egur bolumenaren diferentzia, gehienbat hostozabaletan bakanketak edo oin soilen mozketak egiten direlako izaten dira, koniferoen kasuan soiltzeak egiten diren artean.

**Basoberritzeak (1995-2004)**

Ha. guztira	Koniferoak %	Hostozabalak %
15,36	85,9	14,1

**Basoberritzeen eboluzioa (1995-2004)**



Iturria: Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua (GFA)

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>	
	<p>Basoberritzeak ez dira oso ugariak izan 1995etik hona. Izan ere, udalerriko baso azalera osoaren %5aren pareko den azalera landatu da, paisaian eragin txikia izanik. Hori bai, basoberritze hauetan koniferoak nagusitu dira.</p>
	<p><b>5.1.2. <u>Zertifikatutako baso ustiapenen existentzia</u></b></p> <p>Larraulen badago zertifikatutako baso ustiapena duen jabego bat; 15 Ha. dira guztira, hau da, baso azalera osoaren ia %5.</p> <p>Gipuzkoan, %42a da zertifikaturik dagoen basoen portzentaia mendi publikoetan, eta pribatuetan berriz, %5,89a. Beraz, Larraulgo datua Gipuzkoako batezbestekoaren parekoa da.</p>
	<p><b>5.1.3. <u>Eraginaren deskribapen kualitatiboa</u></b></p> <p>Basogintzak inpaktu esanguratsuak sor ditzake:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lurzoruaren higadura. Fenomeno hau areagotu egiten da landaketa berriak direla eta hondeamakinak erabiltzen direnean.</li> <li>▪ Baso pistak irekitzeak, hainbat eragin sor ditzake. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Baso eremuen ezabatzea</li> <li>○ Gainazaleko isurketa fluxu handien sorkuntza</li> <li>○ Lurzoruaren trinkotzea</li> <li>○ Higadura</li> </ul> </li> <li>▪ Foru Aldundiko araudiak finkatutako basogintza distantzia minimoak ez betetzeak eragin hauek ekar ditzake. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Baso suteekiko zaurgarritasuna areagotzea</li> <li>○ Herritar, lur-jabe eta abarren arteko liskarrak</li> </ul> </li> <li>▪ Basoetako izurrien gaineko kontrolarentzat tratamendu biologiko-kimiko integratuak burutzeak (baso eremuak hegazkin bidez fumigatzea...) kalteak eragin ditzake modu</li> </ul>

## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

### 5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)

selektiboan ez bada jokatzen


Eragin positibo hauek ekar ditzake baso jarduerak:

- Negutegi efektuaren aurkako eragin positiboa
- Higaduraren aurkako eraginkortasuna, zuhaitzek lurrari eutsi egiten baitiote
- Ura lurrera iragazten laguntzea
- Uholdeetan uraren abiadura geldiaraztea
- Gertuko inguruetan mikroklima atsegina sortzea, neguan izoztetik babestuz, udan itzala emanez, eta haizea baretuz
- Zaratatik babesa
- Biodibertsitatea areagotzea

#### 5.2 Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak

- Baserriaren gainbehera argia dela ikusten dute gehienek.
- Gazteak baserriatik joan egiten dira eta baserrietan adinduak geratzen dira. Hauek hiltzean baserriak hutsik geratuko dira.
- Minden zabaltzearen inguruan kexa ugari izan dira. Batzuk diote kanpotarrak direla usaia dela medio gehien kexatzen direnak, baina bertakoak ere kexu dira.
- Baserriaren eragin positiboen artean, erdigunearen inguruko lursailen itxura aldatu ez izana, eta esnearen bilketa dela eta errepedea garbi mantentzea aipatzen dituzte batzuk.
- Kontsumo propiorako balio duen baratzeak mantentzen dira.
- Lursailen kudeaketa eta mantenua errazteko, kontzentrazioa proposatzen duenik bada.
- ARAZO LARRITZAT BALORATU DA BASERRIAREN GALERA, ETA HONEK ERAGIN ZUZENA DU HERRIAREN PAISAIA ETA NORTASUNEAN.
- BASERRITIK BIZI DIREN HERRITARRAK, GEROZ ETA GUTXIAGO DIRELA ARAZOTZAT IKUSTEN DA, BAI ETA, GAZTEEK EZ DUTELA BASERRIAN GERATU NAHI. BASERRIAN BERTAN EDO

#### 5.2.1. Ustiategiak



Udalerriko ustiategiaren azalera hazi da 1989-99 epean. Ustiategi guztiek dituzte lurak, eta gehienek aziendak ere. Lur landuen azalera txikia da, larreak nagusitzen direlarik.


## HERRITARREN DIAGNOSTIKOA

## DATU OBJEKTIBOAK

### 5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)

ONDOAN ETXEBIZITZA ANTOLATZEKO AUKERA EMAN EZKERO, JENDE GAZTEA BERTAN GERATUKO LITZAKE BIZITZEN, ETA HONEK, LAGUNDUKO LUKE INGURUNEAK TXUKUN EDUKITZERAKO ORDUAN.

- ARAZO IZAN ARREN EZ DA LARRITZAT JOTZEN MINDEN USAIA. PURINAREN INGURUKO ARAZO GEHIENAK, LEGEA BETEARAZTEN EZ DELAKO SORTZEN OMEN DIRA.



Ustiategien azalera handitu bada ere, ustiategien kopurua jaitsi da 1989-99 epean. Orokorrean, espezializazio maila txikia dagoela esan daiteke, ustiategi gehienek baitituzte lur landuak, larreak, bestelako lurak eta aziendak.

2004ko abenduko Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, ustiategi kopuruak 1999koaren berdin mantendu dira, 31 ustiategietan.

Lurraren erabilera	Ha-k	%	Baserri kop.	% <sup>1</sup>
Bazka-laborantza	198,10	48,87	24	77,42
Barazkiak	0,75	0,18	5	16,13
Loreak	0	0	0	0
Fruta-arbolak	8,99	2,22	14	45,16
Beste landaketa batzuk	0,73	0,18	2	6,45
Basoak	174,19	42,97	23	74,19
Sastrakak, lur ez-emankorrak	22,59	5,57	14	45,16
GUZTIRA	405,36	100	-	-

<sup>1</sup>: Ustiategi guztiekiko gai hauetan lan egiten duten ustiategiak  
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia 2004ko abendua

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK															
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>																
	<table border="1" data-bbox="790 432 1437 591"> <thead> <tr> <th>Abereak</th> <th>Baserri kop.</th> <th>%</th> <th>Buru kop.</th> <th>Buru/baserri</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Ardiak</td> <td>14</td> <td>45,16</td> <td>990</td> <td>70,71</td> </tr> <tr> <td>Behiak</td> <td>18</td> <td>58,06</td> <td>369</td> <td>20,5</td> </tr> </tbody> </table> <p data-bbox="790 562 1437 591">Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia 2004ko Abendua</p> <p data-bbox="790 607 1465 752">2003ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera 10 ustiategi ziren Urteko Marjina Gordin Osoa 10000€tik gorakoa zutenak. Ustiategi hauen titular moduan bi emakumezko ageri dira.</p>	Abereak	Baserri kop.	%	Buru kop.	Buru/baserri	Ardiak	14	45,16	990	70,71	Behiak	18	58,06	369	20,5
Abereak	Baserri kop.	%	Buru kop.	Buru/baserri												
Ardiak	14	45,16	990	70,71												
Behiak	18	58,06	369	20,5												
	<p data-bbox="790 768 1465 837"><b>5.2.2. <u>Nekazaritza/abelzaintza ekologikoko ustiategien existentzia</u></b></p> <p data-bbox="790 853 1465 931">Larraulen ez dago Nekazaritza/abelzaintza ekologikoko ustiategirik.</p>															
	<p data-bbox="790 947 1465 981"><b>5.2.3. <u>Eraginaren deskribapen kualitatiboa</u></b></p> <p data-bbox="790 996 1465 1066">Nekazaritzak eta abeltzaintzak inpaktu esanguratsuak sor ditzakete:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="790 1081 1465 1854"> <p>▪ Nekazal jarduerekin lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="890 1171 1465 1279">○ Nekazal jardueretan erabiltzen diren produktu batzuk hautsa, gas igorpenak... sor ditzakete.</li> <li data-bbox="890 1301 1465 1440">○ Produktu kimikoak (pestizidak, ongarriak,...) modu intentsibo eta desegokian erabiltzeak lurpeko urak kutsa ditzake.</li> <li data-bbox="890 1462 1465 1570">○ Nekazaritzako hondakinak (edukiontzia, plastikoak, ...) modu egokian kudeatzea beharrezkoa da.</li> <li data-bbox="890 1592 1465 1700">○ Urak, agente natural bezala, landaredia gabe geratu den zoru biluziarengan higadura eragin dezake.</li> <li data-bbox="890 1722 1465 1854">○ Higadura edota nekazal jarduera desegokiek lurzorua egitura eta propietate fisiko-kimikoak eralda ditzakete.</li> </ul> </li> <li data-bbox="790 1877 1465 1995"> <p>▪ Abelazkuntzarekin lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="890 1955 1465 1995">○ Abeltegi edo ustiategi intentsiboetako</li> </ul> </li> </ul>															

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>	
	<p>hondakinen hartxidura dela eta kiratsa sor daiteke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Abelazkuntzako hondakinak ongarri bezala modu desegokian erabiltzeak lurzorua eta lurpeko uren kutsadura eragin dezake.</li> </ul> <p>Eragin positibo hauek ekar ditzakete nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bertako paisaia eta nortasuna mantentzen laguntzen dute.</li> <li>▪ Herritik gertuen dauden lursailetan erabilera hauek mantenduz gero, lurrak garbi eta txukun mantentzea.</li> <li>▪ Nekazaritza eta abeltzaintzan erabiltzen diren lursailen ertzetako harresiek, landare-hesiek eta zuhaitz bakanez biodibertsitatearen babesean, higaduraren aurka, uholdeen aurka, haizetik babesten, itzala ematen... laguntzen dute.</li> <li>▪ Nekazaritza eta abeltzaintza zentzudunari esker, ingurumena hondatu gabe, osasunari dagozkion arauak betetzen dituzten elikagai osasungarriak ekoizten dira.</li> <li>▪ Nekazaritza eta abeltzaintzari esker, lur-sailak garbi mantentzen dira, eta honek, sute arriskua gutxitzen du.</li> </ul>
<b>5.3 Industria</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Larraulen ez dago industriarik, eta hau ez da gaizki ikusten.</li> <li>▪ Larraulen pabiloiren bat egitekotan, Asteasu edo Villabona-Amasako eskaintzarekin lehiatu ahal izateko prezio merkean jarri beharko litzatekeela uste da, eta askok zaila ikusten dute bideragarritasuna.</li> <li>▪ Herriko autonomoentzat pabiloi bat egitekotan ibili zen udala, baina lursail aproposa aurkitzeko orduan adostasun ezak zapuztu zuen proiektua, gehienek ustez.</li> <li>▪ ARAZO LARRIA DA IA LANTEGIRIK EDO INDUSTRIARIK EZ EGOTEA, BAINA BERTAKOEK</li> </ul>	<p><b>5.3.1. Enpresa nagusiak</b></p> <p>Larraulen ez dago industriarik.</p> <p>Larraul garapen txikikotzat baloratu da behin-betiko onespina duen EAeko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arabera, gainbehera ekonomikoan edota demografikoan dauden zonetan ekintza dinamizatzaile eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna aipatzen delarik.</p> <p>Lurraldearen Arloko Plan honen arabera, Larraulen ez da aurreikusten merkataritza ekipamendu handirik ezartzea, gehienek 15.000m<sup>2</sup> azalera garbia eta 5000m<sup>2</sup>ko sabai-azalera duen eraikina, ipintzea</p>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>	
<p>EZ DUTE PABILOI INDUSTRIALIK NAHI, TAILERTXO EDO ETXE AZPIREN BAT AGIAN, BAINA ARAU SUBSIDIARIOEK EZ DUTE HONELAKORIK BAIMENTZEN.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ LARRAULEN INDUSTRIA PABILOIREN BAT EGITEKOTAN, ASTEASU ETA VILLABONA-AMASAKO ESKAINTZEKIN LEHIATZEA EZ DA ARAZOTZAT IKUSTEN, NAHI IZANEZ GERO ERE, INDUSTRIAK EZIN BAITUTE JOAN.</li> </ul>	<p>izango litzateke posible.</p>
	<p><b>5.3.2. <u>Eraginaren deskribapen kualitatiboa (zaratak, usainak...)</u></b></p> <p>Industria jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Baliabide naturalen kontsumoa (lurzorua, ura, energia eta gainontzeko lehengai eta gai osagarriak)</li> <li>▪ Hondakinak (ur zikinak, zarata. igorpenak...)</li> </ul>
<b>5.4 Zerbitzuak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eguraldi ona den astebukaeretan batez ere, bisitari asko izaten da herrian. Batzuetan inbasio sentazio izan arren, herriarentzat onuragarria dela uste da.</li> <li>▪ Turismoa bultzatzea ondo ikusten dute gehienek, beti ere bertako ohiturak errespetatuz.</li> <li>▪ Askok uste dute museoa bultzatu beharko litzatekeela. Herritarren artean irekitzen saiatu ziren, baina ez zuen funtzionatu. Tabernaren kargu museoa geratzeak ere ez du funtzionatu.</li> <li>▪ Larraulek aukera desberdinak eskaini ditzake turismoaren ikuspuntutik. Batzuk turismoa bultzatzeko ekintzak proposatu dituzte: Ernioko bidea eta beste oinezko bideak txukuntzea; askaldegia bat prestatzea; Olazar txukuntzea; Txuringadiko errota eta beste errota batzuen artean ibilbide bat prestatzea; museoa bultzatzeko egun osoko egitaraua prestatzea (karobiak bisitatzea barne); Leintz-Gatzagan dauden etxolen tankerako batzuk jartzea; nekazalturismoren bat ipintzea...</li> </ul>	<p><b>5.4.1. <u>Hezkuntza jarduerak / Ostalaritza / Turismo egiturak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ostalaritza establezimenduak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Herriko Ostalua (udalarena).</li> <li>○ Goiz Argi Jatetxea.</li> </ul> </li> <li>▪ Museo etnografikoa: udalak martxan jarria dirulaguntza bati esker. Gaur egun INEMen bidez 6 hilabetetarako kontratatutako pertsona batek eramaten du. Museoaz gain, elizako erretaula eta Txuringadiko errota ere erakusten ditu. Museoa larunbat arratsaldetan eta igande goizetan egoten da irekita, eta horretaz gain astean zehar etortzen diren ikasle taldeentzako ere irekitzen da.</li> <li>▪ Hezkide Eskola: Larraulgo herrigunean aurkitzen da eta hainbat jende erakartzen du herrira. Apezpikutzarena da eta berak kudeatzen du. Batzutan Udalari ekitaldi gutxi batzuk egiteko utzi izan arren, beste batzutan berriz eskaera</li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk diote asteburutan jendea etortzen denez, aparkatzeko arazoa sortzen dela.</li> <li>▪ EZ DA ARAZO MODUAN IKUSTEN ASTEBUKAERETAN JENDEA HERRIRA GERTURATZEA, NORMALEAN INBASIO SENTSAZIORIK EZ DA IZATEN. BESTALDE HEZKIDE ESKOLARA ETORTZEN DIREN TALDEEKIN INBASIO SENTSAZIOA IZATEN DU ZENBAITEK.</li> <li>▪ ARAZO LARRIA DA, MUSEOAREN ETORKIZUNARI BEGIRA ZERBAIT EGITEKO BEHARRA. AUZOLANA PROPOSATZEN DUTE IREKITA EDUKITZEKO MODU GISA, EDOTA LEKU IREKIAGO BATEAN KOKATZEA, INOREN BEHARRIK EZ IZATEKO.</li> <li>▪ APARKATZEKO ARAZOAK HEMENDIK AURRERA GEHIAGO IZANGO DIRELA USTE DUTE, ETXE BERRIAK BETETZEN HASTEN DIRENEAN. APARKALEKU BERRIAK EGITEA BAINO DAGOENA ANTOLATU BEHAR DELA ESATEN DA, IZAN ERE FRONTOI ONDOAN ETA PARKE ONDOAN DAUDEN APARKALEKUAK EZ OMEN DIRA ERABILTZEN, PLAZATIK 20 METROTARA EGONDA. JENDEA ERABAT OHITUA DAGO PLAZAN APARKATZEN.</li> <li>▪ TURISMOA ERAKARTZEKO EGURREZKO ETXOLAK EGIN ETA ALOKAIRUAN JAR DAITEZKE MURGIL ONDOAN, GARAI BATEAN BOLATOKIA ZENAREN ALDAMENEAN. BOLATOKIA MARTXAN JARTZEKO PROPOSAMENAK ERE LUZATU DA.</li> </ul>	<p>egin arren ezezkoa jaso dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Sagardotegirik ez dago.</li> <li>▪ Nekazalturismorik ez dago.</li> <li>▪ Dendarik ez dago.</li> <li>▪ Kutxazainik ez dago. Gertuen dagoena Asteasukoa da.</li> <li>▪ 2004ko Tolosaldeako Turismoko Plan Estrategikoaren arabera Larraulen ikusgai diren baliabide historiko eta kulturalak, Larraulgo Elizako erretaula eta Museo Etnografikoa dira. Baliabide naturalak eta aisialdikoei dagokienez berriz, Ernio izendatzen da. Turismo Plan Estrategikoaren diagnostikoan aipatzen denaren arabera naturaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen da, Ernio Mendizerraren kokatzen den Larraul. Bestalde Tolosaldeako Turismoko Plan honetan, Larraulen nekazalturismorik ez dagoela azaltzen da.</li> </ul>
	<p><b>5.4.2. <u>Jardueron eraginaren deskribapen kualitatiboa</u></b></p> <p>Zerbitzu jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Baliabide naturalen kontsumoa areagotzea (lurzorua, ura, energia eta gainontzeko lehengai eta gai osagarriak)</li> <li>▪ Hondakinak edo zarata sortzea.</li> </ul>
<b>5.5 Lurzoru poluituak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Badirudi mendi zokoren batean eta karobietan hondakinak aurki daitezkeela, batzuk komentatu</li> </ul>	<p><b>5.5.1. <u>Potentzialki poluitutako lurzoruen identifikazioa eta leheneratze jardueren</u></b></p>



HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>5. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA (BIZI KALITATEAN ETA INGURUMENEAN)</b>	
<p>dutenez.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk diote baserrietan hildako abereak mendian uzteko ohitura izan dela, eta oraindik ere horrela egiten dela, nahiz eta hauek jasotzeko zerbitzua izan. Udan usain arazoak etor daitezke gorpu hauek direla medio.</li> </ul>	<p><b><u>existentzia</u></b></p> <p>Ez dago datu ofizialik.</p>
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Udalerrian azalera handienak baso eta belardien artean banatzen dira.</p> <p>Larraulgo baso azalerari dagokionez, bai Tolosaldeako, bai eta Gipuzkoako batezbesteko baso azalerekin alderatuz, Larraulgo basoen azalera txikiagoa da. Gipuzkoako baso azalarekiko diferentzia, Tolosaldeako azalarekiko baino handiagoa da. Gipuzkoarekin alderatuz, hostozabalen portzentaia bikoitza baino handiagoa da Larraulen. Hala ere, elkarrizketatu batzuk pinudiak hedatu direla diote, baina Herri Batzarrean esan da pinudien hedatzearen inguruko arazorik ez dela. Baso mozketen azalera basoberritzeena baino baxuagoa izan da, eta batez ere koniferoak erabiltzen dira basoberrikuntzan. Basoen ustiakuntzak ekar ditzakeen eragin negatiboen aurrean, gaur egun, ez da kezkarik azaltzen. Lursailak garbi mantentzea, aldiz, geroz eta zailago ikusten da, eta hau arazo moduan ikusi da Herri Batzarrean.</p> <p>Elkarrizketetan eta Herri Batzarrean, baserriak gainbehera doazela ikusten da eta larritzat jotzen da galera bai eta, honek dakartzan ondorioak. Ustiategiaren kopuruak behera egin du 1989tik hona, baina azalera handitu egin da. Honen arrazoa ondokoa izan liteke: dirulaguntzen politikaren aldaketaren ondorioz, lehen deklaratzeko ez ziren hainbat lursail orain deklaratzeko direla. Orokorrean, espezializazio maila txikia dagoela esan daiteke, ustiategi gehienek baitituzte lur landuak, larreak, bestelako lurrak eta aziendak. Egungo datuen arabera, esan liteke baserriaren paisaia ez dagoela galtzeko arriskuan, baina egun dauden ustialekuak etorkizunean mantenduko ote diren ez dakigu, eta herritarrek diote gazteek ez dutela baserrian lanik egin nahi. Mindek sortzen duten usaiaren inguruan zenbait kezka da, batzuk diote kanpotarrak direla gehien kezkatzen direnak, baina argi dago bertakoak kezka direla ere. Hala eta guztiz, minden usaina ez da arazo larri moduan identifikatu Herri Batzarrean. Lursailen jabeetako batzuk gaur egun belardietan ardiak ipintzen dituzte zelaiak garbi mantentzeko. Zelaiak garbi mantendu beharra guztiek ikusten duten behar bat da, baina egia da etorkizunean baserriak galtzen badira hau zaila suertatuko dela. Oraingoan, 1989ko larre azalera mantentzen dela diote datuek.</p> <p>Partzelen kontzentrazioarako proposamenak egiten dira zenbaiten aldetik, basoak eta nekazar lurrak kudeatzea errazagoa izan dadin.</p> <p>Larraulen ez dago industriarik. Bertako zenbait autonomorentzat pabiloi bat egin nahi izan zen baina ezerezean geratu zen guztia. Orokorrean, Herri Batzarrean ia industria edota lantegirik ez egotea arazo larri gisa baloratu da. Bestalde pabiloiak baino, tailertxoak eta etxe azpiko lokalak hobe ikusten dira.</p> <p>Zerbitzuei dagokienez, herrian bi taberna daude eta honez gain museoak. Museoaren etorkizuna arazo larritzat baloratu da Herri Batzarrean. Herrira haur taldeak etortzen dira eta zenbaitek honen inguruan beraien kezka adierazi dute, astebukaeratan berriz, kanpoko jendea dator. Larraulek turismorako eskaintza handia eduki dezake, batzuen iritziz, eta zenbait proposamen egiten dituzte.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>6. ARRISKUEN ANALISI ETA KUDEAKETA</b>	
<b>6.1 Udalerrri mailako Larrialdi Planak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Suteei aurre egiteko herrian ez dago antolaketarik, udala arduratzen da.</li> </ul>	<p><b>6.1.1. <u>Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra</u></b></p> <p>Udalak badu irrati bat, "SOS Deiak"-ekin zuzenean konektatua.</p>
<b>6.2 Udal azpiegitura eta instalazioetarako Larrialdi Planak</b>	
	<p><b>6.2.1. <u>Larrialdi planen existentziaren egiaztapena eta deskribapen laburra</u></b></p> <p>Larraulen ez dago inolako Larrialdi Planik</p>
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Ez dago ez udalerrri mailako, ez udal azpiegitura eta instalazioetarako larrialdi planik.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>7. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA</b>	
<b>7.1 Komunikabideak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean, Udaleko gauzetaz informatuak sentitzen dira gehienak, bandoak baitaude, bai eta bilkura irekiak ere nahi duenarentzat.</li> </ul>	<p><b>7.1.1. <u>Udalerri mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Larraulen ez dago udalerri mailako komunikabiderik. Buzoneoa da erabiltzen dena.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Idatzizko prentsa (Egunkaria, Hitzza, Diario Vasco, etab.) irakurtzen dute gehienek, eta bertan herriaren inguruko informaziorik bada, jasotzen dute.</li> </ul>	<p><b>7.1.2. <u>Eskualde mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tolosaldeako Hitzza: 7.500 ale.</li> <li>▪ Aiurri: 2.500 ale.</li> </ul>
<b>7.2 Komunikazioa Udaletxetik</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk udaletxearen aktibitate eta erabakien inguruan informatuak sentitzen diren bitartean, beste batzuen iritziz, ez daude behar adina informatuak.</li> <li>▪ Buzoneoa egiten da, baina gauza puntualen ingurukoa omen da. Ahoz-ahoz ere udaletxeko gauzetaz enteratu arren, askotan gauzetaz gaizki enteratzen dira.</li> </ul>	<p><b>7.2.1. <u>Udalak erabiltzen dituen komunikazio-kanalak: Bandoak, komunikabideak...</u></b></p> <p>Bandoak udaletxeko panelean jartzen dira eta etxe guztiko buzoietan sartzen dira.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Plenoko akten laburpenen bat buzoneatu edota hauei buruz udal paneletan informazioa jarri beharko litzatekeela uste da batzuen iritziz.</li> <li>▪ Plenoetara joateko aukera izan arren, jendea ez da plenoetara joaten.</li> <li>▪ PLENOETAKO GAI ZERRENDA PANELEAN EZ DELA AGERTZEN LEPORATU ZAI O UDALARI. GAI ZERRENDA BALEGO HERRITARREK IKUSTEKO AUKERA IZANGO LUKETE ETA PLENORA JOATEA INTERESATZEN ZAIEN BAI EDO EZ ERABAKI, BESTELA GARBI DAGO INOR EZ DELA JOANGO.</li> <li>▪ HERRITAR BATEK PROPOSAMEN BAT EGITEN DU: HERRI INGURUAN ALDAKETAREN BAT EGITEA PENTSATZEN DEN BAKOITZEAN HERRI BATZAR BAT EGITEA.</li> </ul>	<p><b>7.2.2. <u>Udal batzordeak: Batzorde irekien existentzia, batzordeen arteko komunikazioa...</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondorengo batzorde informatzaileak daude eratuta: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Kultura, Kirola eta Festa Batzordea.</li> <li>○ Osasun eta Ongizate Batzordea.</li> <li>○ Hirigintza, Obra, Ingurune eta Nekazaritza Batzordea.</li> <li>○ Ogasuna, Pertsonala eta Barne Antolamendu Batzordea.</li> <li>○ Kontuetako Batzorde Berezia.</li> </ul> </li> </ul>
<b>7.3 Komunikazioa Udaletxearekin</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk diote ideiak udaletxera modu zuzenean eramateko ez dagoela arazorik; arazoak ideiak</li> </ul>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>7. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA</b>	
<p>martxan jartzeko garaian sortzen direla.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Batzuk diote herritarrek parte hartzeko aukera gutxi eskaintzen dela udaletxetik. Hala ere, gehienek aitortzen dute plenoetara ez dela inor joaten, eta uste dute hobe izango litzatekeela herritarrak joango balira.</li> <li>▪ Herritarren eta udalaren arteko bilerak festetarako prestakizunetan soilik egiten direla esaten dute batzuk.</li> <li>▪ HERRITAR BATEK DIO AZKEN BEDERATZI URTEETAN EZ DELA EGIN HERRI BATZARRIK LARRAULEN. UDALETXEARI HERRITARREI GAUZAK EZKUTATZEA LEPORATZEN DIO, ETA ORAIN ARTE LEHENENGO GAUZAK EGIN, ETA ONDOREN KONTSULTATZEN DIRELA AIPATZEN DA.</li> </ul>	
<b>7.4 Heziketa aktibitateak</b>	
	<p><b>7.4.1. <u>Udaletxeak edo Udalez gaindiko entitatereen batek sustatutako kanpainak eta ekimenak</u></b></p> <p>Larraulen Hezkide Eskola dago. Etxea apezpikutza da eta bertara haur eta gazteak etortzen dira egun bat baino gehiagoko egonaldiak egitera.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Aurten Hezkide Eskola aterpetxeak, Erretoretxearen fatxada konpondu eta margotuko duten, 15-27 urte bitarteko zenbait gazte jasoko ditu uztaillaren 4tik 17ra.</li> </ul>
<b>7.5 Udalerriko elkarte sarea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Udalak elkarte sarea bultzatzen lagundu du; izan ere, elkarteko lokala udalak utzia da, eta elkarteko kideek konpondua. Etxebizitza berrietara etorriko diren batzuk eskatu dute bazkietza, eta kide berri asko badago, lokala handitzeko beharra izan litekeela diote batzuk.</li> <li>▪ Elkarte sortzea ona izan da herriarentzat, tabernetan biltzeko ohiturarik ez dagoenez, jendea elkartzen laguntzen baitu.</li> <li>▪ Elkarteak batez ere gastronomikoki funtzionatzen omen du, eta ez hainbeste kulturalki. Batzuk diote kultur astea, aste gastronomiko bilakatzen</li> </ul>	<p><b>7.5.1. <u>Udalerriko elkarteak eta partaidetza eredia</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Katilutxulo Kultur Elkarte <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Elkarte gastronomiko moduan funtzionatzen du gehien baina kultur ekintzetan ere parte hartzen dute</li> <li>○ Lokala eta hura egokitzeke dirua udalak jarri zituen eta lanak auzolanean egin zituzten.</li> <li>○ San Estebanetan eta San Bartolometan hamaiketako eta udazkenean kultur astea antolatzen dute (udalaren</li> </ul> </li> </ul>

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>7. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA</b>	
<p>ari dela. Hauen ustez, kulturalki lan gehiago egin beharko luke elkarteak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean, gurasoak biltzearen arrazoa seme-alabak izaten dira.</li> <li>▪ Batzuk diote eliza garbitzeko jende gutxi biltzen dela.</li> <li>▪ EZ DA ARAZO LARRI GISA IKUSTEN, BAINA ELKARTETIK KULTUR EKINTZA GEHIAGO PRESTATU BEHAR DIRELA USTE DA.</li> <li>▪ ARAZO GISA IKUSI ARREN, LEHENTASUN HANDIRIK GABEKOA DA, ELIZAREN GARBIKETARAKO JENDE GUTXI BILTZEA. JADA ELIZA GARBITZEN URTE ASKO DARAMATZATENEK ERRELEBOA ESKATZEN DUTE.</li> </ul>	<p>aurrekontuarekin).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hiru pertsonaz osaturiko junta du elkarteak (lehendakaria, diruzaina eta ardanegi-zain). Urtero aldatzen da.</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elizaren inguruan hainbat herritar biltzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hermandadea deitzen zaion talde bat badago, eliza garbitzeaz, hileta elizkizunak antolatzeaz... arduratzen dena.</li> </ul> </li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Garai batean zabaldua zegoen auzolanaren praktika galtzen doala uste da, eta ohitura hau berreskuratzea zaila dela.</li> <li>▪ ARAZOTZAT IKUSTEN DA AUZOLANAREN GALERA.</li> </ul>	<p><b>7.5.2. <u>Parte hartzeko beste bide batzuk</u></b></p> <p>Egiten den auzolan bakarra, emakumeek egiten duten eliza garbitzerakoan.</p>
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Udaletxetik bando eta buzoneoak erabiltzen dira herritarrak informatuak izan daitezen. Herriko gauzen inguruan elkarrizketatuak informatuak sentitzen dira, baina badira udalak herritarrak ez informatzeaz kezkatzen direnak ere. Herri Batzarrean, udaletxetik herritarrei luzatzen zaien informazioaren inguruan gabeziak azaleratu dira. Plenoak irekiak izan arren, herritarrak ez omen dira gerturatzen, baina askok aitortzen dute parte hartu beharko luketela. Ahoz-ahoz zabaltzen da udaletxeko erabakien informazioa, baina askotan gauzak gaizki azaltzen omen dira. Horregatik zenbait proposamen egiten dira: plenoko akten laburpen bat buzoneatzea, udaletxeko paneletan plenora joan ala ez erabakitzeke, plenoan landuko diren gaien zerrenda bat ipintzea.</p> <p>Orokorrean, udaletxera gauzak proposatzera joatea erraza dela uste da; arazoak proiektuak martxan jartzeko orduan sortzen dira.</p> <p>Apezpikutzaren eskuetan dagoen Hezkide eskolak haur asko gerturatzen ditu Larraulera, zenbait kexa azaldu dira Hezkide eskolara etortzen diren haurrek parke inguruan sortzen duten zikina eta soinuaren inguruan.</p> <p>Udalak herriko elkarte sarea eratzeke lagundu dela diote gehienek. Katilutxulo elkarte herriarentzat positiboa izan dela diote elkarrizketatuek, eta herritarrak beraien artean biltzeko balio duela. Elkarteak batez ere gastronomikoki funtzionatzen du, eta ekintza kultural gehiago nahi lituzketela aipatzen da Herri Batzarrean.</p> <p>Elizaren garbiketak emakume talde bat biltzen du, arazo larria izan ez arren, errelebo eske daude lanean ibili direnak. Auzolanaren ohitura galera arazo moduan identifikatu da Herri Batzarrean.</p>	

HERRITARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK
<b>8. UDAL INGURUMEN KUDEAKETA</b>	
<b>8.1 Ingurumenaren aldeko ekimenak (udalak garatutakoak zein udalaz gaindiko entitateen partaidetzak garatutakoak)</b>	
	<b>8.1.1. <u>Landa eremuko jarduerari lotutakoak</u></b> Ez dago daturik.
	<b>8.1.2. <u>Beste batzuk</u></b> Ez dago daturik.
<b>8.2 Udal ingurumen araudia, eta paisaiari buruzkoa</b>	
	Ez dago daturik.
<b>8.3 Ingurumen edo/eta iraunkortasuneko irizpideak kontutan hartu direneko jarduerak</b>	
	<b>8.3.1. <u>Erosketa berdea</u></b> Ez da egiten.
	<b>8.3.2. <u>Kontratazioko plegu teknikoak</u></b> Ez da iraunkortasun irizpiderik sartzen pleguetan.
<b>Interpretazioa</b> Ez da udal ingurumen kudeaketarik aurrera eramaten	

HERRI TARREN DIAGNOSTIKOA	DATU OBJEKTIBOAK																
<b>9. UDALAREN ONDAREA</b>																	
<b>9.1. Eraikinak</b>																	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Udaletxea: eraikin honetan daude kokatuta udal bulegoak, kultur ekintzetarako gelak (balioanitzeko bat eta liburutegia), museo etnografikoa, Katilutxulo elkarte eta Herriko Ostatua.</li> </ul>																
<b>9.2. Hilerria</b>																	
	Hilerria 2001ean berritu zen, nitxoak jarri ziren. Oraingo ez dago arazorik, nahikoa leku dago.																
<b>9.3. Lursailak</b>																	
	<p>Larraulgo Udala 7 partzelatan banatuta dauden 2,4684 Ha-aren jabe da. Honoko erabilera dute lursail hauek:</p> <table border="1" data-bbox="775 974 1394 1406"> <thead> <tr> <th data-bbox="775 974 1083 1028">Landaketa mota</th> <th data-bbox="1083 974 1394 1028">Ha kopurua</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="775 1028 1083 1081">Pinudia</td> <td data-bbox="1083 1028 1394 1081">1,4179</td> </tr> <tr> <td data-bbox="775 1081 1083 1135">Larreak</td> <td data-bbox="1083 1081 1394 1135">0,2070</td> </tr> <tr> <td data-bbox="775 1135 1083 1189">Txarak</td> <td data-bbox="1083 1135 1394 1189">0,3002</td> </tr> <tr> <td data-bbox="775 1189 1083 1243">Hostozabalen basoak</td> <td data-bbox="1083 1189 1394 1243">0,4450</td> </tr> <tr> <td data-bbox="775 1243 1083 1296">Zituak, zerealak</td> <td data-bbox="1083 1243 1394 1296">0,0362</td> </tr> <tr> <td data-bbox="775 1296 1083 1350">Emangaitzak</td> <td data-bbox="1083 1296 1394 1350">0,0621</td> </tr> <tr> <td data-bbox="775 1350 1083 1404"><b>GUZTIRA</b></td> <td data-bbox="1083 1350 1394 1404"><b>2,4684</b></td> </tr> </tbody> </table> <p>Iturria: Landa Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren 2005eko zentsua.</p>	Landaketa mota	Ha kopurua	Pinudia	1,4179	Larreak	0,2070	Txarak	0,3002	Hostozabalen basoak	0,4450	Zituak, zerealak	0,0362	Emangaitzak	0,0621	<b>GUZTIRA</b>	<b>2,4684</b>
Landaketa mota	Ha kopurua																
Pinudia	1,4179																
Larreak	0,2070																
Txarak	0,3002																
Hostozabalen basoak	0,4450																
Zituak, zerealak	0,0362																
Emangaitzak	0,0621																
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,4684</b>																
<p><b>Interpretazioa</b></p> <p>Udalaren ondareak dira, zenbait eraikin, lursail eta hilerria.</p>																	

## INFORMAZIO ITURRIAK

- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea
- E.A.E.ko Baso Inbentarioa (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila)
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
- EUSTATEko serie estatistikoak
- Garraio zerbitzuetako enpresak
- Nekazaritza Ustialekuen Errolda
- Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Publikoko Sarearen Azterketa (Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua, Lur eta Garraioetako Zuzendaritza Nagusia)
- Gipuzkoako errepideen mapa eta zirkulazio intentsitatearen neurketak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua)
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentua, Basozaintza eta Natura Inguruneako Zerbitzua
- Gipuzkoako udal web. orria
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
- Herri Batzarra
- Herritar elkarrizketatuak
- Herritarren ekarpen indibidualak
- Iberdrola S.A.
- Landa Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko zergen zentsua
- Lurralde Antolamenduaren Artezpideak eta Lurraldearen Arloko Planak
- Natura 2000 Sarea eta EAEko Garrantzizko Espazio Naturalen Katalogo Irekia



- Potentzialki Poluitutako Lurzoruen Inbentarioa (IHOBE)
- Tolosaldeako Landa Garapen Programa
- Tolosaldeako Mankomunitatea
- Tolosaldeako Turismoko Plan Estrategikoa
- Udala: Udal ordezkari eta teknikariak
- Zertifikatutako Enpresen Zerrenda (IHOBE)